



**eke • icb**

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL BASQUE

# Ekintzen bilduma **2018**

Éuskal kultur erakundearen biltzar nagusia • 2019ko apirilaren 6a

TOTOKA







<b>EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO BARNE ANTOLAKETA.....</b>	<b>5</b>
<b>1. EUSKAL ETNOPOLOA – AHOZKO ONDARE INMATERIALAREN IKERKETA ABERASTU. 7</b>	<b>7</b>
<b>1.1. Ahozko ondarea eta ondare inmaterialaren bilketa, hedapena eta balorapena .....</b>	<b>7</b>
1.1.1. <i>Eleketa</i> programaren jarraipena.....	7
1.1.2. <i>Eleketa</i> fondoaren osagarri: inbentario fitxak .....	7
1.1.3. Ipar Euskal Herriko soinu eta ikus-entzunezko artxibo zaharren balorapena .....	7
1.1.4. Alemaniako euskal presoen grabaketen balorapena.....	8
<b>1.2. «Ondarea - Sorkuntza» ikerketa-ekintza garatu.....</b>	<b>9</b>
1.2.1. <i>Traversées musicales en Nouvelle-Aquitaine</i> proiektua.....	9
<b>1.3. Esperimentazio eta formakuntza guneak ireki.....</b>	<b>10</b>
1.3.1. Ahozkotasanari buzuzko mintegiak1 .....	10
1.3.2. <i>Euskararen munduak: indarguneak eta erronkak</i> kolokioa.....	11
<b>2. EKE-ren ESTRATEGI NUMERIKOA (2018-2020) .....</b>	<b>12</b>
<b>2.1. Etnopoloaren ikerketak eta gogoetak hedatu .....</b>	<b>12</b>
2.1.1. Mintegien eta kolokioaren bildumak sarean.....	12
2.1.2. Ikerketak eta gogoetak sarean eman .....	12
2.1.3. Euskal kulturaren aktualitatea hedatu.....	13
<b>2.2. Ondarearen datubaseen sarrera.....</b>	<b>13</b>
2.2.1. Iparraldeko ahozko memoriaren atariaren garapena: <a href="http://mintzoak.eus">mintzoak.eus</a> .....	13
2.2.2. SOKA erakusketaren edukien katalogoa sarean eman .....	14
2.2.3. Ahozkotasanaren eta PCI kontsultagune bat sortu.....	15
2.2.4. Fondo berezien balorapen numerikoa.....	16
<b>2.3. Eduki numeriko editorializatuak ekoiztu eta partekatu.....</b>	<b>17</b>
2.3.1. <i>SOKA</i> erakusketaren ibiltaritza.....	17
2.3.2. <a href="http://www.eke.eus">www.eke.eus</a> atariaren arraberritzearen prestaketa .....	18
2.3.3. Kanpoko eragileen ekarpena.....	18
<b>2.4. Kultur aktualitatea bateratu eta baloratu.....</b>	<b>18</b>
2.4.1. <a href="http://www.eke.eus">www.eke.eus</a> webguneko agendaren eguneraketa.....	18
2.4.2. Kultura eragileentzako informazio zaintza .....	19
2.4.3. Sortzaileen ikuspuntuaren agerian ematea .....	19
2.4.4. EKE-ren eta bere partaideen berrien zabalpena.....	20
2.4.5. Euskal kulturaren aktualitatearen inguruko komunitate-animazioa sare sozialetan .....	20

<b>3. KULTURA ERAGILEAK ETA ELKARTEKIDEAK SUSTENGATU</b> .....	<b>21</b>
<b>3.1. Arlo desberdinen egituraketa lagundu</b> .....	<b>21</b>
3.1.1. Euskal zinema .....	21
3.1.2. KIMU Proiektua .....	22
3.1.3. Zineskola dispositiboa.....	22
3.1.4. Euskal antzerkiaren hedapena Ibilki programari esker .....	23
3.1.5. Euskal dantza .....	23
3.1.6. Euskal musika eta dantza – Ohiko euskal musiken eta dantzen baliabide gunea .....	29
<b>3.2. Lurraldeak lagundu</b> .....	<b>29</b>
3.2.1. Kultura politika publikoen sostengatzea .....	29
3.2.2. Kultura eskubideak integratu politika publikoetan .....	30
3.2.3. Kultura eta arte programazioa lagundu.....	30
3.2.4. Partaidetzak egitura labelizatuekin.....	31
<b>3.3. Euskal kulturari sensibilizatu</b> .....	<b>32</b>
3.3.1. Arte eta kultura heziketari (AKH) eta eskola inguruko jardueri sustengua .....	32
3.3.2. Euskararen eta euskal kultura irakurketa publikoa-ren sarean integratzea .....	33
<b>3.4. Euskal kultura hedatu</b> .....	<b>36</b>
3.4.1. Mugazgandiko harremanak garatu .....	36
3.4.2. Euskal kulturaren hedapena Akitania-Berrian .....	40
<b>4. KULTURA ERAGILEAK ETA ELKARTEKIDEAK SUSTENGATU</b> .....	<b>45</b>
<b>4.1. Elkartekideak lagundu</b> .....	<b>45</b>
4.1.1. Informazio gaualdiak antolatu .....	45
4.1.2. Jarraitze kolektibo bat antolatu .....	46
<b>4.2. Elkartekideen proiektuak lagundu</b> .....	<b>47</b>
4.2.1. Sorkuntzari laguntza.....	47
4.2.2. Hedapenari laguntza .....	51
4.2.3. Eskolen arteko proiektuen laguntza.....	66
<b>ERANSKINAK</b> .....	<b>67</b>
2018KO ELKARTEKIDEEN ZERRENDA .....	68

# EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO BARNE ANTOLAKETA

## **BILTZAR NAGUSIA**

168 elkartekidek osatzen dute eta gainera barne dira ere legezko kideak eta pertsonalitate kalifikatuak.

## **ADMINISTRAZIO KONTSEILUA (2018)**

Euskal kultur erakundearen administrazio kontseiluaren osaketa, Mikel Erramospé-ren lehendakaritzapean:

### **Instituzioen taldea**

#### **Estadoaren ordezkariak:**

Gilbert PAYET jauna, prefeta  
Hervé JONATHAN jauna, suprefeta  
Arnaud LITTARDI jauna, DRAC-eko zuzendaria

#### **Akitania-Berriaren ordezkariak:**

Charline CLAVEAU-ABADIE anderea, Eskualdeko kontseilaria  
Fédérique ESPAGNAC anderea, Eskualdeko kontseilaria

#### **Pirinio-Atlantikoetako Departamenduko ordezkariak:**

Bénédicte LUBERRIAGA anderea  
Max BRISSON jauna, Departamenduko kontseilaria

#### **Eusko Jaurlaritzako ordezkaria:**

Aitziber ATORRASAGASTI anderea, kultura zuzendaria

#### **Euskal Hirigune Elkargoa:**

Bernard ARRABIT jauna  
Bruno CARRERE jauna

### **Kultura eragileen taldea**

#### **Euskal kultura eragileen ordezkariak:**

Pierre-Paul BERZAITZ jauna  
Ximun CARRERE jauna  
Jean-Baptiste COYOS jauna  
Xabi ETCHEVERRY jauna  
Juhane DASCON jauna  
Patxi AMULET jauna  
Mikel ERRAMOUSPE jauna  
Agnès AGUER anderea  
Julien CORBINEAU jauna  
Filipe LESGOURGUES jauna  
Peio SOULE jauna

#### **Gomitatuak:**

Bernadette SOULE anderea  
Erramun BACHOC jauna

## BULEGOA

**Lehendakaria**..... Mikel ERRAMOUSPE


**Diruzaina**..... Peio SOULE

**Idazkaria**..... Juhane DASCON

## TALDE PROFESIONALA

2018an, lan bat eraman dugu langile bakoitzaren postuen zehazteko, koherentzia bilatuz EKE-k finkatu ardatz estrategikoen eta bere egitekoen artean.

«SOGECA Conseil» lantegiak lagundu gaitu langileak entzunez. Lanpostu fitxa bat idatzia izan da bakoitzarentzat, eta ondoko organigrama eraikia.



# **1. EUSKAL ETNOPOLOA – AHOZKO ONDARE INMATERIALAREN IKERKETA ABERASTU**

## **1.1. Ahozko ondarea eta ondare inmaterialaren bilketa, hedapena eta balorapena**

### **1.1.1. *Eleketa* programaren jarraipena**

*Eleketa* programak bere bidea segitu du 2018an: 27 lekukotasun bildu dira urtean zehar (Pirinio-Atlantikoetako departamenduaren babespean). Horietarik hogoik Iparraldean XX. mendearen bigarren zatian eragin duten mugimenduen historia jorratzen dute, izan dadin kultura, erlijio, ekonomia, gizarte ala politika sailetan. Azken zazpiak bizi historiak dira, Garazi-Baigorri (4), Iholdi-Oztibarren eta Zuberoan (1) filmatuak. Lekukoen gehiengoa (22) gizonetzkoa da.

### **1.1.2. *Eleketa* fondoaren osagarri: inbentario fitxak**

Eulka kultur erakundea-k (EKE) diru laguntza berri bat eskuratu du 2018an, Frantziako Kultura Ministeritzatik (Ikerketa eta Politika Zientifiko Gidaritza Departamentuaren deialdi bati erantzunez) inbentario fitxa batzuen osatzeko. Fitxa hauek lotuak dira Unescok 2003an izenpetu ondare inmaterialari buruzko hitzarmenari. Hitzarmen honek kultura arloko bost sail lehenesten ditu (ahozkotasuna, ikusgarri biziduna, erritoak eta bestak, naturari eta unibertsoari lotu jakitateak, eskulanak) eta sail hauetako praktiken inbentario baten egitea gomendatzen du.

Inbentario-fitxen egiten hasi da EKE 2015an *Eleketa*-n aipatzen diren kultura ohidura batzuetaz informazio sakon eta sintetiko bat ekartzeko. Lehen deialdi bati erantzunik 2015ean eta bost fitxa dokumentaturik 2016-2017an (ikus 2017ko bilana), bigarren deialdi bati erantzun du 2018an. Ondorioz, beste bost fitxa berrien egiten hasi da gai hauen inguruan: Errege Magoen Besta Donibane-Lohizunen (Trufaniaz), Lapurtar ihauterietako Zantantzar pertsonaia, Lapurdiko besta batzuetan egin ohi den Antzara Jokoa, Idi Gizenen Besta Baionan, Santibate-Libertimenduak Baxenabarren. Lan honek 2020ko martxorako bururatua izan behar du.

### **1.1.3. Ipar Euskal Herriko soinu eta ikus-entzunezko artxibo zaharren balorapena**

Departamenduak, 2011n hasia duen numerizazio programaren bidez, helburua dauka arriskuan dauden funts zaharren salbatzea eta kontserbatzea. Numerizatu dituen funts soinudun eta ikus-entzunezkoen tratamendua EKE-ri emana dio 2012az geroztik (deskribapena eta dokumentazio tratamendua, datubasea sortzea), urtero finkatu programa batean.

2018an, EKE-k Mikel Erramouspéren artxiboak baloratu ditu (102 ordu baino gehiago) eta 5NUM25 1-69 datubasea sortu.

Departamenduko artxibo zerbitzuaren berrantolaketak (EKE-ren erreferente zagon artxibistaren postua erreberritu gabea), ondorioa badauka obralaritza misioen segipenean.

#### **1.1.4. Alemaniako euskal presoen grabaketen balorapena**

Lehen Mundu gerla garaian, Prusiako Komisio fonografikoak Alemaniako preso-esparruetan presoak grabatu zituen hizkuntzen eta musiken ikertzeko asmoz. Horien artean, 10 euskaldun: Antoine eta Jean-Baptiste Suhas anaiak (Arrangoitze), Laurent Issuribehere (Larresoro), Pierre Labadie (Hazparne), Jean-Baptiste Mendiburu (Donibane Lohizune), Jean-Noël Irigoyen (Ainhiza-Monjolose), Pierre Mendiburu (Armendaritze), Joseph Jaureguiber (Lorraine), Pierre Ascarateil (Altzai) eta Saint-Jean Bidegaray (Garindaine). Orotara 3 ordu eta 21 minutu grabaketa, kantu zati eta testuz osatuak.

100 urte geroago, EKE ari da Berlingo Etnologia Museoa eta Humboldt unibertsitatea erakundeen ganik ukan dituen euskal grabaketen kopia numerikoen ikertzen eta baloratzen.

Gogora dezagun:

- 2015-2016an, Mondragon unibertsitateko 2 ikasleek egin zuten *Maitia nun zira ?* dokumentala
- 2017an, Jasone Salaberria hizkuntzalariak jatorrizko eskuizkribuetarik 35 transkripzioak egin zituen.

2018an, Armistizioaren mendeurrena ospatua izan den urtean, EKE-k ekintza hauek obratu ditu:

- Balorapena sarean Mintzoak.eus atarian:

Mediazio numeriko ekintza garrantzitsua: helburua zen interneten bidez jendek ezagut ditzaten Lehen Mundu gerlako euskal artxibo arraroak, Etnologia museoko kantuak entzun ditzaten eta EKEk 2016tik daraman balorapen ekintzen berri ukan dezaten.

Prusiako komisio fonografikoaren euskal grabaketak aurkeztuak izan dira eta katalogatuak, EKEk sortua duen Iparraldeko memoria kolektiboaren atarian. Horrela, euskal preso bakoitza balorean emana izan da bere ibilbidearen bidez, grabaketak zerrendatuz eta horien artean Etnologia Museokoak entzungai ezarri (2017ko azaroko baimena berme). Halaber Jasone Salaberriaren jatorrizko transkripzioak ikusgai jarri dira.

Ekintza hau EKEren estrategia numerikoaren plangintzan sartzen da, ondare datubasetarako sarbideen errazteko, aldi berean Mintzoak ataria garatzen duelarik.



- Kultura mediazioa:

- Maite Deliart-en multimedia hitzaldia, Uztaritzen emana bi aldiz, Herriko etxea antolatzaile: *Euskal kantua eta kultura, Alemaniako preso kanpamenduetan*, azaroaren 9an (frantsesez) Armistizioaren mendeurrena kari, eta azaroaren 28an (euskaraz) *Uzta Hitzan* festibala kari.

- Erakusketetan parte hartzea, alde batetik *les Amis de la Vieille Navarre* elkarteak antolatua, *Baxenabarre eta Gerla Handia – Irisarri, Armendaritze, Heleta, Iholdi, Landibarre eta Suhuskune herrietan* Irisarriko Ospitalean urriaren 27tik azaroaren 11ra (Armendaritzeko Pierre Mendiburu euskal preso) eta Donazaharren azaroaren 9tik 17ra (Ainhize-Monjoloseko Jean-Noël Irigoyen), eta bestetik, Lapurdi Halsuko herriak antolatua zuen afitxa zahar erakusketaren soinu girotea, azaroaren 11tik 16ra.

## **1.2. «Ondarea - Sorkuntza» ikerketa-ekintza garatu**

### **1.2.1. *Traversées musicales en Nouvelle-Aquitaine* proiektua**

Euskal Etnopoloa labelaren baitan, EKE eta Gizarte Zientzietako Goi Mailako Ikasketen Eskolak (EHES) *Musika zeharkaldiak Zuberotik Limousinera* izeneko proiektua eraman dute, Akitania Berriko kultur ekintzen zuzendaritzarekin partaidetzan (Akitania Berriko DRAC-a).

Limousin eta Euskal Herriko artisten arteko topaketa bat izan da, helburu honekin asmatua: ikuskizun berezia sortzea euskaraz, okzitanieraz eta frantsesez, musika, kantua, poesia eta antzerkia nahasiz.

Proiektuan parte hartu duten artistak Akitania-Berria lurraldeko bi hegalmuturretan bizi dira: Zuberoa eta Limousin. Urruntasun horrek, elkar ezagutzera, elkarrekin lan egitera eta norbanakoaren aniztasunen inguruan trukatzera bultzatu ditu; lurraldearekiko eta lurrarekiko atxikimendua, hizkuntzak (ahulduak eta guttitiak), kasu honetan euskara eta okzitaniera, proiektuan funtsezkoak direlarik.

Zuzendaritza artistikoa, kultur ondare herrikoia interpretatzaile ezaguna eta ezagutua den Mixel Etxekopar-en esku utzia izan da. Bernard Combi, Maika Etxekopar, Hélène Jacquélet, Pierre Vissler eta Nicole Lougarot-ekin lan egiten du.

Maite dituzten idazleetan oinarrituz, bereziki Marcelle Delpastre-ren okzitanier idazlearen eta Itxaro Borda euskal poetaren testuen inguruan lan egin dute. Ideia zen obra poetiko-musikal baten sortzea, nun hizkuntzen, musiken, kantuen eta poesien berezitasunak eta haien arteko harremanak agertuko ziren. Euskal Etnopoloa labelaren baitan, EKE-k eta EHES-ek kultura ondare inmaterialaren eta sorkuntzaren arteko loturak galdezkatzen dituzte, hizkuntza aniztasuna ere.

Beraz, ikerketa proiektu hau Etnopoloak daraman lan ardatzetan kokatzen da. Horregatik, Claudia Llamas eta Camille Riverti, EHES eskolako bi ikaslek, proiektuan parte hartu dute, sorkuntza prozesuaren jarraipen etnografiko baten egiteko. Horrela, sortze prozesuaren lekuko bereziak egon dira, prozesua bera aztertuz eta ikertuz. Lehen egonaldiari buruzko ohar liburua (frantsesez) EKE-ren webgunean dago.

2018ko ekainaren 27tik 30era, artistak joan ziren Marcelle Delpastre sortu eta bizi izan zen herrira Limousin eskualdean. Sorkuntzaren elikatzeko, topaketak egin dituzte biztanleekin, soinu grabaketak, musika inprobisazioak, Marcelle-n bertso batzuk publikoan erranak izan direlarik Tulle hiriko merkatu egunean.

Agorrilaren 1etik 3ra, taldeak bere bidea segitu du Euskal Herrian, Gotaine-Irabarnen, *Hebenko ta Hanko* artista topaketa publikoen kariatara. Aldi huntan, sortzaileak Itxaro Borda idazlearekin egon dira Xiberuko emanaldia prestatzeko.

Lehen emanaldi publikoa agorrilaren 3an aurkeztua izan da, Irabarneko jauregian, 120 bat ikusleren aurrean, arrakasta ederra bilduz.

Egitasmo honen hirugarren etapa Baionako Arteen Erdigunean iragan da urriaren 10ean *Haizebegi* festibala kari, hiru partetan zatitua:

- Lehenik, Denis Labordek animatu mahai ingurua kultur politikoen erronken inguruan Pantxoa Etchegoin, Bernard Combi eta Mixel Etxekoparekin.
- Ondotik, Claudia Llamas eta Camille Riverti, EHES eskoletako bi ikerlariak *Etnografoak alor artistikoan: ikuspuntu bat sorkuntzari buruz* mintzaldia eskaini dute, egitasmoaren segipenean oinarrituz.
- Eta azkenik, Mixel Etxekopar, Bernard Combi eta Pierre Vissler artistek *D'una lenga l'autra, Musika zeharkaldiak Zuberotik Limousinera* kontzertu performantza liluragarria eman dute.

## **1.3. Esperimentazio eta formakuntza guneak ireki**

### **1.3.1. Ahozkoatasunari buruzko mintegiak**

Euskal etnopololo labelizatua izan denetik, EKE-k mintegi bat antolatzen du urtero, EHES Goi Mailako Giza Zientzia Eskolarekin eta etnopololoaren partaide-sortzaileekin. Mintegi hori zortzi mintzaldiz osatua da, urritik ekainera iragaten direnak, Baionako euskal erakustokian. 2018ko mintzaldien gai orokorra ahozkoatasuna izan da. Zortzi ikerlarik jorratu dute gai hori, bakoitzak bere alde eta manera bereziarekin:

- Urtarrilaren 11n - *Ahozko euskal literatura: generoak eta adibideak*, Xabier Paya Ruiz, ikertzailea.
- Otsailaren 8an - *Pastorala, bi munduen artean*, Pierre Vilar, Konferentzia irakaslea, Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitatean.

- Martxoaren 1ean - *Gerra ondorengo memoria ahozko testigantzen bidez*, Aitzpea Leizaola, Antropologia irakaslea, Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU.)
- Apirilaren 12an - *Ahozkotasuna egun*, Andoni Egaña, bertsolaria.
- Maiatzaren 15ean - *Sortzez eleaniztunak edo elebakarrak? Hori da galdera*, Enoch Aboh, Hizkuntzaren Zientzietako irakaslea, Amsterdameko Unibertsitatea.
- Urriaren 18an - *Ahozko artxibotik ondare inmaterialera: nola heldu?* Florence Descamps, konferentzia irakaslea historia garaikidean.
- Azaroaren 22an - *Berridazketaren gaia Webster eta Cerquand-en ipuinetan*, Natalia Zaika, hizkuntzalaritza ikerlaria.
- Abenduaren 20an - *Lapurdiko, Baxenabarreko eta Zuberoako herri kontakizunen bilketa eta azterketa*, Maialen Moreno Zubeldia, euskal filologian doktorea.

### **1.3.2. Euskararen munduak: indarguneak eta erronkak kolokioa**

Euskal etnopoloa euskararen indarguneetaz aritu da ekainaren 29an antolatu dituen jardunaldietan. *Euskararen munduak: indar-guneak eta erronkak* lema-aren pean, jardunaldi hauek hizkuntzaren erabilpena eta nortasunarekin duen lotura neurtu nahi izan dute.

Goizarekin, hizkuntza guttituen (Belen Uranga) eta euskararen (Etxepare Euskal Institutua) egoera munduan agerian emanak izan dira. Ondotik, euskararen tokia euskaldunen gogoan (zientzia kognitiboaren ikuspegitik Itziar Lakarekin) baita ere goi erakaskuntzan (Jon Casenavekin) aipatuak izan dira, ahantzi gabe Euskaltzaindiaren ibilbidea euskararen normalizazioan.

Arratsaldean, euskararen erabilpenaren gaia izan da nagusi, diglosia egoerari aurre egiteko plantan ematen diren dispositibo (Mintzalasai, Euskaraldia aipatu dute Viviane Ithurssarry ta Jenofa Berhokoirigoinek) eta euskarazko komunikabideen bidez (Eneko Bidegain). Euskalgintza eta feminismoaren arteko bidaikidetzak ere aipatu da (Lorea Agirre) eta, nolaz ez, euskararen biharko norabide eta erronkak (Jon Sarasua).

## 2. EKE-ren ESTRATEGI NUMERIKOA (2018-2020)

### 2.1. Etnopoloaren ikerketak eta gogoetak hedatu

#### 2.1.1. Mintegien eta kolokioaren bildumak sarean

Hizlariak baimena eman ondoan, etnopoloren labelaren baitan antolatu mintegietako eta jardunaldietako hitzartze guziak filmatuak dira. [www.eke.eus](http://www.eke.eus) webguneko 'Euskal etnopoloa' atalaren barnean sailkatuak dira. Horiek hola 2018an ahozkoatasunari buruzko mintegiko 8 hitzaldien bildumak plazaratu ziren sarean bideoz eta testu elebidunez osatu artikuluen bidez. Euskararen munduei buruzko jardunaldien bilduma ere molde berean argitaratu zen.

#### 2.1.2. Ikerketak eta gogoetak sarean eman

##### ➤ «Ondarea & Sorkuntza» txostenak

«Ondarea & Sorkuntza» lan-ildoaren baitan sartzen diren ekintzak eta gogoetak 'Euskal etnopoloa' atalean aipatuak dira ere, multimediar oinarritu txosten berezien bitartez. 2018an 'Euskal kulturaren lekukoak' elkarrizketak argitaratu ziren bertan. Era berean, bi proiektu artistikok segipen berezia ukan zuten: *D'una lenga l'otra*, *Musika zeharkaldiak Zuberotik Limousinera* eta *Vienne – Euskal Herria: bilketatik sorkuntzarat*.

##### ➤ «Dokumentazioa & numerikoa» tailerraren bilduma

Etnopoloak lan sail zabala abiatua du Ipar Euskal Herriko dokumentazio eragile nagusiak bilduz, numerikoak eskaintzen dituen ahalbideen aztertzeke. Helburua: euskal kulturari lotuak diren edukiak publikoari gehiago zabaltzea.

Mota guzietako erabiltzaileek (publiko zabala, ikerlariak, artistak...) baliabide numerikoak errazki eskura eta kontsulta ditzatzen, metodologia eta praktika amankomunak bidera daitezke denen artean. Gai hau aipatua izan zen ere Etnopoloaren lehen kolokioaren kariatara, 2017ko maiatzaren 19an, *Euskal kulturaren atari bat: zertarako? Norentzat? - Kultura baliabide numerikoak: publiko zabalaren erabilpenetatik sorkuntza artistikoraino* lemapean.

Trukaketa horien sustatzeko 'Dokumentazioa eta numerikoa' lantalde irekia sortu da Etnopoloaren baitan.

*Gordetzen eta zabaltzen ditugun funtsak nola deskribatu?* izeneko tailer bat antolatu du Uztaritzen, Lota Jauregian, 2018ko abenduaren 6an. Topaketa horien hitzaldi desberdinen bideoak sarean dira.

### 2.1.3. Euskal kulturaren aktualitatea hedatu

Etnopoloaren berriak eta iharduerak aktualitate hari berezi baten bidez segitzen ahal dira eke.eus webgunean, bi hizkuntzatan. Albiste horiek berripaper elektronikoen eta sare sozialen bidez zabaltzen dira ondotik.

Gainera, etnopoloaren partaide desberdinen arteko komunikazioa sustatzen da beti berri horiek ahalik eta hobekien partekatuak izan daitezen, tresna numerikoen bitartez, egitura bakoitzaren sareetan.

## 2.2. Ondarearen datubaseen sarrera

### 2.2.1. Iparraldeko ahozko memoriaren atariaren garapena: **mintzoak.eus**

2018an Mintzoak.eus, Ipar Euskal Herriko ahozko memoriaren ataria azkarki garatu da (2016an sortu zuen EKE-k), eduki berri frango aterpetuz.

- [www.mintzoak.eus](http://www.mintzoak.eus) atariko estatistikak:
  - \* Bisitak: 10 123
  - \* Erabiltzaileak: 8001
  - \* Ikusitako orriak: 43 264

#### ➤ **Eleketa programaren 'Euskal dantza' katalogoa eskuragarri**

EKE-k Iparraldeko hainbat dantzari eta eragileren lekukotasunak bildu ditu 2012 eta 2017 artean, Pirinio-Atlantikoetako Departamenduarekin daraman *Eleketa* programaren kariatara. Egindako grabaketak xeheki zerrendatzen dituen datubasea sareratu da Mintzoak.eus atarian, bi hizkuntzatan.

Sareratze hau Departamenduko artxibotegiarekin finkatu partaidetzaren baitan kokatu behar da.

EKE-k lehen aldiz [earchives.le64.fr](http://earchives.le64.fr) webgunean aterpetua zen datubasean datu-uzta bat egin du, OAI protokoloan oinarrituz. Horri esker datubase horretako euskal dantzari buruzko metadatuak - 19AV datubasean sartuak (lekukoen biografiak, bideo-pasarteen deskribapenak...) berreskuratzen ditugu Mintzoak plataforman eta gero itzuli euskarara.

'Euskal dantza' bilduma horretan daude:

- 93 lekuko
- 71 grabaketa (ia 100 ordu)
- 1663 pasarte (lekukotasun zati)



### ➤ **Ahotsak** bilketaren Ipar Euskal Herriko grabaketak sarean

EKE-ko eta Badihardugu elkarteko ordezkariak 2017ko otsailean izenpetu zuten hitzarmenaren harira, sartu dira Mintzoak.eus plataforman *Ahotsak* egitasmoaren kariatara Ipar Euskal Herrian orain arte bilduak izan diren lekukotasunak.

Badihardugu (Debagoiena, Gipuzkoa) elkartearen helburuetako bat Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak biltzea eta hedatzea da; hau da, gure herrietako adineko jendea elkarrizketatu, eta haien euskara eta bizipenak eskuratzea eta herritarren artean zabaltzea.

Helburu horren betetzeko Euskal Herriko hainbat herritako jende adinduei inkestak eginez material audioa zein bideozkoa bildu du. Material hori egokitu eta transkribatu ondoren [www.ahotsak.eus](http://www.ahotsak.eus) webgunean zintzilikatzen dute. 2018ko Abbadia saria lortu du egitasmoak euskararen normalizazioaren alde egindako lanarengatik. Iparraldean, 180 elkarrizketa baino gehiago egin ditu Badihardugu elkarteak (2018ko datuak).

Zenbaki batzuk:

- 157 lekuko (gizonezkoak: %61 - Emakumezkoak: %39)
- 1095 pasarte
- 173 oren grabaketa

### ➤ **Donibane Lohizuneko herri-memoriaren lekuko**

Donibane Lohizuneko herriko etxeak bilketa bat sustatu zuen 2012an hiriaren memoria atxikitzeko, hainbat arlo aztertuz: eskulangintza, bizi ekonomikoa, soziokulturala eta kirola adibidez. Lekukotasun guztiak Mintzoak plataforman ikusgai dira orain, herriaren eta EKE-ren arteko partaidetza bati esker.

Funtsa gehien-gehienik euskaraz egin diren elkarrizketez osatua da.

Zenbaki batzuk:

- 16 lekuko
- 15 grabaketa (20 oren inguru)
- 399 pasarte (lekukotasun zati)

Azpirarratu behar da beste bi funts nagusi zerrendatuak eta baloratuak izan direla Mintzoak.eus atarian: *Euskal Herria Orain eta Gero* Maite Barnetche kazetariaren telebista emankizunen bilduma eta Lehen Mundu gerlako euskal presoen grabaketen bilduma (ikus 2.2.4).

## **2.2.2. SOKA erakusketaren edukien katalogoa sarean eman**

2015eko irailan ibiltzen hasi zenetik (ikus 2.3.2), *SOKA* erakusketaren arrakasta erabatekoa da. 30.000 bisitari izan dira orain arte instalatua izan den 18 herri

ezberdinetan (besteak beste Donostian, Bilbon, Zarautzen, Maulen, Donibane Lohizunen, Angelun, Iruñean, Hendaian, Lonsen edo Bordelen), bai eta Boiseko (Idaho-Estatu Batuak) Euskal Museoa, han *SOKA*-ren modulu bat erakutsi baitzen 2015ko udatik 2017ko primaderara.

Publiko zabalago batengana heltzeko gisan eta ibiltaritzaren bukaeran edukien eskuragarritasuna nolabait bermatzeko Akitania Berriko DRAC-aren laguntzarekin, P@trinum programaren baitan, EKE-k *SOKA* erakusketan ikusgarri diren dokumentu guzien zerrenda osatu du 2018an.

EAD (Encoded Archival Description) hobetsia izan da erakusketan diren 440 dokumentuen (bideoak, soinu grabaketak, ikonografia, testuak...) zerrendatzeko. Mainer Bedaxagar dokumentalistak eraman du katalogatze lan hori EKE-ren izenean, hainbat erakunderen aholkuetan bermatuz (Dantzaren zentro nazionala - CND, Médiacité, Baionako mediateka, Iparraldeko Dantzarien Biltzarra...) eta Frantziako liburutegia nazionalaren arauak errespetatuz (lekziko tematiko eta geografikoei begira batez ere).

Oroitaraz dezagun dokumentu horiek erreproduzio numerikoak direla. Jatorrizko dokumentuak toki (artxibotegiak, museoak, familien funtsa pribatuak...) eta herri desberdinetatik datoz. Haietatik batzuk sarean ikusgai dira. Denak EKE-ko ahozko ondare kontsultagunean eskuragarri dira, hitzordua hartuz gero.

Katalogo numeriko gordina Bilketa.eus atarian ikusgai dago orain, frantses bertsioan, Baionako herriko etxe eta EKE-ren arteko partaidetza baten karietara. Horiek hola, EKE *Bilketa* proiektuko eduki-hornitzaile bilakatzen da, beste hainbat partaidek osatzen duten sareari juntatuz.

2019ko udaberritik goiti euskaraz ere eskuragarri izanen da katalogoa, publiko zabalari zuzendu bertsio egokitu eta erakargarriagoan, [www.soka.eus](http://www.soka.eus) webgunean.

### **2.2.3. Ahozko ondarearen eta PCI kontsultagune bat sortu**

Ahozko ondarearekin zerikusia duten hainbat ikus-entzunezko dokumentu daude kontsultagarri EKE-n, dagozkien jabe desberdinen baimenarekin beti. Baliabide numeriko horien ezagutarazteko ahozko ondare kontsultagune bat sortu du bere egoitzan EKE-k, Uztaritzeko Lota Jauregian.

Kontsultagunea deneri irekia da (ikerlariak, ikasleak, artistak, kultur eragileak, kulturzaleak...) eta dohainik eskaintzen den zerbitzua da. Ezinbestekoa da hitzordua hartzea aitzinetik.

Gaur egun, ondoko funtsak daude kontsultagarri:

- *Eleketa* ahozko bilketa programako lekukotasunak (340 lekukotasun)

- Maite Barnetche kazetariak 1971 eta 1986 artean zuzendu *Euskal Herria orai eta gero* telebista emankizunak
- Prusiako Komisio fonografikoaren artxiboak (Alemania) - Lehen Mundu gerlako euskal presoek grabaketak (1916-1917)

Funts horien oinarritzko zerrenda [www.mintzoak.eus](http://www.mintzoak.eus) webgunean aurkitzen ahal dira.

*SOKA, euskal dantzaren urratsetan* erakusketaren dokumentuak ere ikusgai/entzungai dira.

Bestalde, [www.mintzoak.eus](http://www.mintzoak.eus) atarian kontsultagarri ez dauden *Ahotsak* bilketa programako lekukotasunak (Iparraldean grabatuak) ikusten ahal dira, aitzinetik eskatuz gero (betiere programa honen arduraduna den Badihardugu elkarteak baimena eman ondoan).

Bilaketak egiten ahal dira erran bezala [www.mintzoak.eus](http://www.mintzoak.eus) plataforman jakiteko zer kontsulta. Hitzordu bat hartzen ahal da ondotik, ikerketa-xedea azalduz. Kontsulta egiten da beti EKE-ko langile baten ardurapean. Hor dago bilaketak errazteko eta aholkuak emateko.

## 2.2.4. Fondo berezien balorapen numerikoa

### ➤ Lehen Mundu gerlako euskal presoek grabaketak argitara emanak

Alemaniko preso-esparruetan, Prusiako Komisio fonografikoak grabatu zituen presoak hizkuntzen eta musiken ikertzeko asmoz. Horien artean, 10 euskaldun. Gaur, EKE-n pausatuta izan diren euskal artxibo arraroak [Mintzoak.eus](http://Mintzoak.eus) atarian aurkeztuak dira eta EKEren egoitzan kontsultagarri (ikus 1.1.4).

### ➤ Maite Barnetche-ren telebista emankizunak

EKE-k eta INA - Frantziako entzun-ikusen erakundeak (Tolosako adarra - INA Délégation Pyrénées) lan amankomuna abiatu zuten 2017an Maite Barnetche (1941-1986) kazetariak 1971 eta 1985 artean zuzendu *Euskal Herria Orai eta Gero* telebista emankizunen baloratzeko.

Egiazko altxorrek badaude INA-ren jabeagoan diren dokumentu horietan. EKE eta INA-ren arteko partaidetza-hitzarmenaren kariatara emankizun bakoitzaren mamia laburbiltzen duen fitxa egina izan da, aldi guziz testuinguru historikoa eta etnologikoa nabarmenduz. Euskarazko laburpen bat idatzia izan da ere. Tratamendua, INA-ko dokumentazio arau zehatzetan oinarritu delarik. Kattalin Totorika-k eta Maider Bedaxagar-ek eraman dute lan xehe hori.

Orain, emankizun guztiak EKE-ko ahozko ondare kontsultagunean ikusten ahal dira, Uztaritzen, hitzordua hartuz gero, baita ere Frantzia osoko INAthèques izeneko bilguneetan (Pauen, Bordelen, Tolosan...).

## ➤ EATB funtsaren oinarrizko inbentario numerikoa

2018ko udan Euskal Antzerki Taldeen Biltzarra (EATB), Ipar Euskal Herriko antzerki taldeen federazio ohiak dohaintzan utzi digun funtsaren lehen inbentarioa egin dugu. Besteak beste 130 bat antzerki testu atxematen dira fondo hortan. 2019an testu horien parte handi baten numerizatzekeo xedea bada.

## 2.3. Eduki numeriko editorializatuak ekoiztu eta partekatu

### 2.3.1. SOKA erakusketaren ibiltaritza

*SOKA, euskal dantzaren urratsetan*, EKE-k ekoiztua du, Gipuzkoako diputazioarekin eta Donostia 2016 Fundazioaren partaidetzarekin. Euskal dantza hobeki ezagutaraztea du helburu, publiko zabalari batez ere. Erakusketa berri honetan, lau hizkuntzatan (euskara, frantsesa, gaztelera, inglesa), 130 m<sup>2</sup>-ko eremuan, euskal dantzaren inguruko 400 ilustrazio baino gehiago daude kontsultagarri (argazki eta irudi bildumak, lekukotasun zatiak, soinu zatiak e.a.). Artxibo horiei gehitu behar zaizkie euskal dantzaren estetikaz edota alderdi sozialaz eginak izan diren bideo sorkuntzak. Azpimarratzekoa da bestalde, EKE-k eraman Eleketa ahozko memoriaren bilketaren kariatara, euskal dantzaren inguruko anitz lekukotasun grabatuak izan direla eta horien zati frango ikusgai direla erakusketan.

Edukien aberastasun guzia jendeen esku uzteko, ukipen-pantailak, formatu handiko telebistak, kuadro numerikoak, ordenagailuak eta bideo proiektzio eremuak baliatuak dira. Halaber, erakusketaren partaide den Euskadiko Filmategiko altxor batzu erakutsiak dira, bai eta bertze artxibo arraro frango ere (besteak beste František Pospíšil etnologo txekiarrek 1927an Baionan, Lekarozen eta Donostian egin filmak).

Adibidez, argazki-kazetaritzaren sortzaileetarik bat izan den Robert Capa-k (Andre Friedmann, 1913-1954) 1951ko abuztuan Saran egin argazkien bost erreproduktzio ikusten ahal dira. Balio handiko dokumentu eder hauek New York-eko International Center of Photography zentroarenak dira.

#### 2018ko ibiltaritza:

- Bordele - Mériadeck liburutegia | 2017ko abenduaren 2tik – 2018ko otsailaren 10ra
- Baiona – Arteen erdigunea | 2018ko martxoaren 16tik apirilaren 6ra
- Angelu – BAB2 merkatal gunea | 2018ko uztailearen 9tik 19ra
- Getxo – Romoko kulturetxea | 2018ko urriaren 4tik azaroaren 4ra

EKE harremanetan egon da ere Kebekeko Euskaldunak elkarteko arduradunekin 2019ko udazkenerako ibiltaritza egokitu baten asmatzeko Ipar Amerikan.

## **2.3.2. www.eke.eus atariaren arraberritzearen prestaketa**

- www.eke.eus webguneko 2018ko estatistikak:
  - \* Bisitak: 268 718
  - \* Erabiltzaileak: 197 281
  - \* Ikusitako orriak: 788 642

2018an eke.eus atariaren arraberritzeko lehen gogoetak eta urratsak eramanak izan dira. 2019an gauzatuko den arraberritze horrek webgunearen hainbat atalen berrantolaketa eraginen ditu EKE-ren estrategia numerikoaren norabideekin bat egiteko (etnopolooaren ihardueren baloratzea, kultura gai batzuen lantzea, kultura aktualitatearen hedapena, e.a.).

## **2.3.3. Kanpoko eragileen ekarpena**

EKE-ren nahia da, Euskal Herriko biztanleek parte har dezaten beren kulturaren ezagutarazteko tresnen sortzean, bereziki www.eke.eus atariaren bitartez. Karia hortara, aipagarriak dira adibidez, sarean erregulariki ezarriak diren Joseph Maris musikariaren partiturak (440 bat dokumentu baino gehiago, urririk publikoaren esku utziak direnak) edo Erramun Bachoc soziolinguistaren kronikak.

2018an Frédéric Sorhaitz, Miarritzeko Itsasoa koruko zuzendaria, ekarpen-egile horiei batu zaie. Euskal kantuak eskuratzen, moldatzen eta egokitzen ari izana da, abesbatzek obra horiek emateko gisan. Gaur egun partiturak (100 bat inguru) eskaintzen ditu eke.eus atariko 'Euskal kantua eta musika' atalean.

Bere bitartez beste musikari, ereslari edo harmonizatzaile batzuek partiturak eman dituzte ere (Jacques Ballue, Mario Gachis, René Zugarramurdi, ...).

## **2.4. Kultur aktualitatea bateratu eta baloratu**

### **2.4.1. www.eke.eus webguneko agendaren eguneraketa**

Kultura eragileek eman datuetatik abiatuz eta euskarri ezberdinetako prentsa bilduma baten laguntzaz, EKE-k egunero ipar Euskal Herri mailako euskal kulturaren agenda osatzen du (mintzaldiak, kontzertuak, animazioak...).

Agenda horretaz gain, aktualitateari buruzko lan berezi bat egiten du ere, erregulariki eguneratzen den albiste hari baten bidez. Paraleloki, zaintza lan horrek, euskal kultura eragileen, elkarten eta egituren errepertorio publikoa eguneraturik mantentzeko aukera eskaintzen du. Informazio guzi horiek herrika geolokalizatuak dira: horrela, bildutako datuei esker, urteko kultura ekitaldiei buruzko estatistika batzuk atera daitezke, herri lurralde eremuka, gaika edo denboraldika.

Astero agenda 2000 kontakturi igorria izan da (erabiltzailearen hizkuntzaren arabera,



euskaraz ala frantsesez) eta Eusko Jaurlaritzaren [www.kulturklik.euskadi.eus](http://www.kulturklik.euskadi.eus) atarian agertu da ere.

2018an:

- 1428 gertakari sartuak izan dira [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atariko agendan.
- Horietan 1186 izan dira Lapurdin, Baxe-Nafarroan eta Xiberoan iragan gertakariei lotuak. Gaineratekoak, Hego Euskal Herrian edo Euskal Herriatik kanpo iragan gertakariei lotuak izan dira.

### **2.4.2. Kultura eragileentzako informazio zaintza**

Kultura agendaren osatzeko egiten den informazio zaintzari esker beste motako argibideak biltzen dira ere, hain zuzen EKE-k laguntzen dituen kultura eragileentzako interesgarriak izan daitezkeenak. Informazio zaintza berezi horrek, administrazio eta zuzenbide alorrei dagokiena (deialdiak, formakuntzak...) honako helburuak ditu:

- 1901eko legepean diren elkarreentzat baliagarriak izan daitezkeen iturrien xerkatzea, izan fiskalitate, legedi edo antolaketa mailan.
- Finantziario aukeren aurkitzea, kultura egitasmoen gauatzeko (laguntzen gida, deialdiak), bai eta hedapenerako ere.
- Kultura elkarteak edo euskal artistak interesatzen ahal dituzten formakuntza eskaintzak biltzea (Euskal Herrian eta Frantzian), bai eta Euskal Herriko lan eta ikastaldi eskaintzak ere.

Biltzen eta hautatzen diren informazio horiek EKE-k hilabetero banatzen duen *newsletter*-ean agertzen dira (ikus 2.4.4).

### **2.4.3. Sortzaileen ikuspuntuen agerian ematea**

2008. urteaz gero, hilabetero [www.eke.eus](http://www.eke.eus) atarian argitaratuak diren 'Euskal kulturaren lekukoak' saileko elkarrizketen bidez, hitza ematen zaie tokian tokiko kultura aktualitateko eragileei (86 elkarrizketa argitaratuak gaur arte).

2018an berritu egin da elkarrizketen formatua, sortzaileek beren arteari buruz eta orohar euskal kulturaren orainaz eta geroaz dituzten iritziak eta gogoetak parteka ditzaten.

Bi hilabeteetarik behin argitaratuak dira orain, argazkiz eta bideo batez osaturik. Jasone Iroz kazetari ohiak (Laukitik At) egiten ditu.

2018an egin elkarrizketak:

- Marie Darrieusecq
- Manex Fuchs
- Kristof Hiriart
- Mathieu Vivier
- Gonzalo Etxebarria

#### **2.4.4. EKE-ren eta bere partaideen berrien zabalpena**

EKE-ren ihardueren inguruko aktualitate hari elebiduna gehiago osatu da 2018an. Lantaldeak daramatzen lan-sail desberdinak gehiago agerian uztea eta azaltzea du helburu (programen kudeaketa, sareen animazioa eta egituratzea, ahozko memoriaren bilketa eta dokumentazioa).

Berri horien zabaltzeko publiko bereziei (prentsa, artistak eta elkarte-kideak...) EKE-k bere hilabeteko *newsletter*-a egokitu du, bere komunikazio instituzionalaren zerbitzuko jarriz. EKE-ren partaide desberdinen aktualitate hautatuak (erakundeak, elkarteak...) osatzen du *newsletter*-aren mamia (egitasmo deialdiak, formakuntza proposamenak, hautagaitzarako deialdiak, ...).

#### **2.4.5. Euskal kulturaren aktualitatearen inguruko komunitate-animazioa sare sozialetan**

2018an ere, EKE sare sozialetan present egon da (bereziki Facebook eta Twitter-en). Tresna horiek egunero segitzea ezinbestekoa bilakatu da besteak beste EKE-ren irudiaren kudeatzeko.

## 3. KULTURA ERAGILEAK ETA ELKARTEKIDEAK SUSTENGATU

### 3.1. Arlo desberdinen egituraketa lagundu

#### 3.1.1. Euskal zinema

##### ➤ **Handia** filmaren banaketari laguntza Iparralde osoan - 2018ko urtarrilatik at

Euskal filma horrek gehien bat ikusle bildu egin dituen filma da Euskadi eta Espanian orain arte (100 000 ikusle baino gehiago). *Handia*-k euskal zinemaren Irizar saria eta 10 Goya jaso egin ditu 2017 eta 2018an.

EKE-k filmaren promozioari eta hedapenari laguntza eman dio urtarrilaren 24tik gora filmegile eta aktoreen presentzian antolatu saioentzat Baionan, Miarritzen, D. Lohitzunen, Donapaleun, Maulen, D. Garazin, Kanbon, Urruñan, Hendaian, Hazparnen eta Orthez-en urtarrilaren 15-24 artean.

Orotara, 8 500 ikusle bildu dira ipar Euskal herriko eta Frantziako 50 zinegeletan.

##### ➤ **Oihaneko zühainetan** kontzertuari laguntza – Atalante zinegelan – 2018ko martxoaren 8an

*Oihaneko zühainetan* diskoaren aurkezpena Oihan Oljar-Inès-en eskutik bere musikariekin, baita ere Mixel eta Maika Etxekopar, Lea eta Laura Etchegoyen, Elsa Oljar-Inès xiberutar kantariekin. Aurretik Elsa Oljar-Inès-en *Les airs sauvages (Basahaideak)* dokumentala aurkeztu da kantuen grabaketa prozesua erakutsiz.

##### ➤ **Euskal zinema** liburuaren egokitzapen lana

Zinemagileen hiru belaunaldiren ibilbideak segituz, idazlan honek euskal zinemaren inguruko hausnarketa bat eskaintzen du. Oinarrizko testu hau lehen aldiz salgai da Iparraldeko liburu-dendetan.

EKE, Etxepare Institutua eta Euskadiko Filmategiaren sustenguz, Pimientos argitaletxearen Arteaz markak *Euskal zinema: zinemagileen hiru belaunaldi* liburuaren frantsesezko itzulpena argitaratu du 2019ko martxoan.

##### ➤ **Bideo tailerra Uda Leku Aisialdi zentroko hurrekin – Biarritz – 2018ko otsailaren 16an**

Elkarteko bi animatzailek kudeaturik eta ikus-entzunezko sektoreko profesional batek gidaturik, hamar hurrek bideo tailer honetan parte hartu dute trailer baten sortzeko. Honek *Zineskola* dispositiboaren emanaldi bakoitza aitzin erakutsia izan da. Tailerra Miarritzeko Reptou eskola publikoan iragan da.

### ➤ **Hiru uhinak** labor metraia egiteko tailerra

18 eta 25 urte arteko ikasleei zuzendutako ikastaro programari laguntza eman zaio Claude Labat, Asier Altuna, Pantxo Arretz eta Elina Gakou Gomba parte hartzaileekin labor metraia baten sortzeko helburuarekin, *Hiru uhinak* ipuinatik abiatuz. Ikastaroak 18 egun iraun du urtarrilaren 27a eta apirilaren 20a artean, Aldudarrak Bideok koordinaturik.

### **3.1.2. KIMU Proiektua**

EKE-k eta Donostia Kulturak bultzatutako KIMU programa honen bitartez Iparralde eta Hegoaldeko lau artista hautatzen dira. Helburua: ikastaro eta haur antzerki festibaletan asistentziarekin trebakuntza-ibilbide bat diseinatzea, haur eta gazteei bideratutako euskarazko arte eszenikoen sorkuntza aberasteko eta dinamizatzeko, EKE, Donostia Kultura, Biarritz Culture eta Teatro paraiso segipen taldearen laguntzarekin. 2018an, KIMUren hirugarren ediziorako Arantxa Hirigoyen, Oihane Enbeita, Asier Zabaleta eta Barbara Rivas artistek ibilbide aberatsa osatu egin dute hainbat festibaletan parte hartuz (Avignon-eko festibala, *Festival International des arts de la rue* Aurillac-eko Nazioarteko Karrika Antzerki Festibala, Xixoneko FETEM, Santander nazioarteko FIS Festibala, Kataluniako Igualada Mostra, besteak beste) eta ikastaro desberdinak segituz (Txotxongilo sorkuntzak - Bruselasean, *Création de marionnettes portées* - Bruxelles, Txotxongiloa eta aktorea, Madrilen, Adel 18, Antzerki laborategia - Leioan, Gorputz figurak - Bartzelonan, Butho dantza - Gasteizen, besteak beste).

Lau parte hartzaileen bukaerako ikerlanak (*Objektu baten gogoeta filosofikoak : zerk ematen dio bizitzari objektu inanimatu bati ?*, *Gogoeta : Antzerkia eta hezkuntza*, *Nola arnastu behar du ikusgarri batek 3urtetik 6 urtera bitarteko hurrekin konektatzeko ?*) eta haien ibilbideak EKE-ren web atarian aurki ditzazke esteka honetan :

<https://www.eke.eus/eu/eke/dokumentuak/kimu>

### **3.1.3. Zineskola dispositiboa**

2018ko otsailaren 26a eta maiatzaren 4a artean, Iparraldeko 50 eskoletako 3000 ikasle eta 200 laguntzaile baino gehiagok parte hartu dute lurraldeko areto guzietan proposatuak izan diren animaziozko proiektuetan.

*Harri Zopa eta beste zonbait alderantzizko ipuin* animaziozko labor metrai serie bat Frits Standaert, Samuel Guénolé, Clémentine Robach eta Pascale Hecquet egileen eskutik, 3-6 urte arteko hurrei erakutsi zaie. Eta 7 urtez goragokoei, Agurtzane Intxaurregaren *Teresa eta Galtzagorri* filma.

Orotara, 85 emanaldi ezberdin hedatu dira Baiona, Miarritze, Donibane Lohizune, Hazparne, Urruña, Kanbo, Maule, Donapaleu Donibane Garazi eta Hendaia herrietako zinegeletan.

1626 ikaslek *Harri Zopa* ikusi dute eta beste 1404 hurrek *Teresa eta Galtzagorri*, orotara 3067 ikasle.

Bestalde, Uda Leku elkarteko bi animatzailek kudeaturik eta ikus-entzunezko sektoreko profesional batek gidaturik, hamar hurrek bideo tailer batean parte hartu dute trailer baten sortzeko. Honek emanaldi bakoitza aitzin erakutsia izan da.

### **3.1.4. Euskal antzerkiaren hedapena Ibilki programari esker**

Ibilki programaren bitartez, EKE-k euskal antzerkiaren hedapena sustatzen du Iparraldeko xoko desberdinetan euskal antzerkiaren kalitatea eta aniztasuna deskubritzeko parada gero eta ikuslego gehiagori proposatuz.

2017-2018 sasoiaren hamar bat programatzailek parte hartu dute euskal antzerkiaren ald. Hona hedatu diren bi antzerkien emanaldiak:

- **Hozkailua - Huts Teatroa**

- Martxoaren 23an - Miarritzeko Le Colisée gela
- Martxoaren 30ean - Hendaiako Mendi Zolan gelan
- Maiatzaren 24an - Mauleko Kasernan

- **Jokoz kanpo – Borobil Teatroa**

- Apirilaren 6an - Bidarteko Beheria aretoan

### **3.1.5. Euskal dantza**

#### **➤ Aholkatu eta lagundu**

Iparralde osoan banatuak diren dantza elkarteak tokian tokiko eragile inportanteak dira; dantzaren eta euskal kulturaren transmisioa sustatzen dute, bolondresen inplikazioari esker eta belaunaldi eta gizarte-geruza guziekin antolatzen dituzten ekintzei esker.

Taldeen laguntzeko, Iparraldeko Dantzarien Biltzarra-k (IDB) bi zerbitzu mota proposatzen dizkie: batetik, formatzen, egituratzen eta komunikatzen laguntzea; eta bestetik, proiektu eta gertakarien antolatzea, beren lanari zentzu gehiagoren emateko.

Ekintza horien antolatzeko, federazioak dispositibo nagusi bat plantan eman du: *Dantza sarean*. Animatzaile soldatadun talde bat dantza-talde zenbait biltzen dituzten bizi-eremuetara joaten da. *Dantza sarean* animatzaile horiek formakuntza pedagogikoa, teknikoa eta kulturala eskaintzen dute, eta horren aberasteko, etengabe gogoetatzen eta tresnak sortzen dituzte, federazioko beste langileekin, federazioaren pedagogia-taldearen baitan.



## **Ekintzak:**

- **Euskal dantzako formakuntza ibilbidearen garatzea: *Oinarriak / Enborra***

Formakuntza ibilbidea federazioko pedagogia-taldeak sortu zuen, 2015ean (euskal dantzako hainbat formatzaile bildu zituen, kontserbatorioko irakasleen laguntzarekin). Euskal dantza-erendako pedagogia berezitu eta koherentearen garatzeko tresna nagusia da. Federazioko formakuntza-dispositibo gehienen oinarria da.

Hilabete guziz, pedagogia-taldea *Dantza sarean*-eko koordinatzaileekin bildu da, tokian tokiko oharren arabera ibilbidearen hobetzeko, osatzeko eta egokitzeko.

Taldeak hainbat pedagogia-tresna sortu ditu: tutorialak, fitxa pedagogikoak, ...

- **FOFO dispositiboa (Formatzaileen formatzea)**

Euskal dantzako formakuntza ibilbidean oinarrituz, Iparraldeko dantza taldeetako irakasleei formakuntza egun bat proposatu zaie. 35 irakaslek hartu dute parte 2017-2018an.

2018ko irailean, dispositiboa hiru probintzietara zabaldu da (Xiberoa, Baxenabarre eta Lapurdi), bereziki *Dantza sarean*-eko animatzaileei esker. Dantza taldeetako 50 irakaslek parte hartu dute hiru FOFO egunetan.

- ***Dantza sarean*-en esperimentatzea (federazioaren proiektu nagusia heldu diren urteendako)**

Formakuntza-ibilbidean oinarrituz, lau koordinatzaile-dantzariz osatu talde bat bi «laborategi» bizi-eremutara joan da, *Dantza sarean*-etara, Hazparneko eta Baxenabarreko lurraldeetako dantza-elkarteekin lan egitera.

Dispositiboa irailean berrabiatu da Hazparneko lurraldean, Lekorneko Urtxuko Xoriak taldearekin. Beste hainbat talde ere lagundu ditu IDB-k: Airoski (Urruña), Ote Lore (Larresoro), Jeikadi (Kanbo), Ataitze (Itsasu). Baxenabarren, aitzineko urteko lana segitua izan da: Arrola (Baigorri), Bunuztar Xoriak (Bunuze) eta Garaztarrak (Donibane Garazi) taldeekin.

- ***Dantza maisua* dispositiboa**

Formatzailerik ez delarik, dantza talde batzuek kanpoko irakasleak gomitatzen dituzte, noiztenka ala urte osorako, dantza kurtsoen ematera. IDB-k mementoan ezin dienez formazio galde guzietan zuzenean ihardetsi, elkarte horiek diruz laguntzera engaiatu zen, kanpoko irakaslearen kostuen zati bat beregain hartuz.

- ***Dantzatrük* dispositiboa**

Dantza-taldeen topaketak eta trukeak antolatzen dituzte, bereziki Hego Euskal Herriko taldeekin, euskararen erabilpenaren garatzeko eta dantzari gazteen kultur irekiduraren laguntzeko. IDB-k, desmartxa horren sostengatzeko eta bultzatzeko, taldeak harremanetan ezartzen ditu eta garraio gastuen zati bat beregain hartzen.

IDB-k bi *Dantzatrük* lagundu ditu 2018an: Urdiñarbe, Eskiula/Duguna (Iruñea) eta Larrain/Ortzadar (Iruñea).

#### • **Webgunearen eguneratzea eta baliabide-funtsaren sortzea**

Taldeen komunikazio beharrei ihardesteko eta sareko tresnak denen eskura emateko (musika, partiturak eta bideoak), federazioak bere webgunea eguneratu du. Bertan, pedagogia-taldearen pedagogia euskarriak eta dantzaren arloko gertakariei buruzko informazioa atzeman daitezke.

Baliabide funts bat (liburuak, CDak, DVDak) sortzen ari da. Euskal dantzari buruzko ikerketa-lanak eta argazki eta bideo zahar artxibatu numerizatuak bilduko ditu, taldeei eskura emateko gisan.

Komunikazio arduraren hartzeko Maitane Eyheramonho enplegatuz, hauek egin ahal izan ditu:

- webgunearen eguneratzea eta taldeendako hedapen tresna bilakatzea. 2019an, langileak tresna horren baliatzeko formatzen segituko du.
- federazioaren VHS eta CD artxiboak numerizatzen hastea.
- dispositiboetarako buruzko komunikazio tresnen sortzea (teaser).

#### • ***Dantzari ttiki*, pedagogia proiektua**

Formakuntza ibilbidean oinarriturik, IDB-ko animatzailez eta Administrazio Kontseiluko kidez osatu pedagogia-taldeak *Dantzari Ttiki*-ren programa aberastu du. Haurrek Garaziko gertakarian eman dantzen ikasteko tresnak sortu ditu. Proiektuak segitzen du, 2019ko *Dantzari Ttiki*-ren programa aberasteko gisan.

#### • ***Musikari ttiki* proiektua**

Proiektu hori musikaren eta dantzaren arteko harremanaren sendotzeko abiatu da, musika eskoletako musika herrikoiko irakasleekin lankidetzan. Musika-ikasleak dantzari gazteendako musiken jotzeko prestatzea zuen helburu, Garaziko *Dantzari Ttiki* xede. Hala, maiatzaren 8an, lurraldeko 4 eskoletako hogeitun bat musikaririk (Hazparnetik, Errobotik, Donibane Garazitik eta Xiberotik) dantzari gazteak musikaz lagundu zituzten.

#### • ***Dantzari Ttiki***

2018an, IDB-k maiatzaren 8an antolatu zuen *Dantzari ttiki*, Donibane Garazin, Baxenabarreko *Dantza Sarean*-eko taldeekin (Bunuze, Garazi eta Baigorrikoekin) eta Garaziko herriko etxearekin lankidetzan.

Gertakarian bildu ziren Iparraldeko 1000 dantzari gazteek urtean ikasi dantzak ikusle anitzen aitzinean eman ahal izan zituzten (1200 jende).

Arratsaldean kalitatezko ikusgarri bat proposatu zuen IDB-k, dantzari gazte eta talde gehienek preziatu zutena (galdeketa bat egin zen ondotik). Beraz, IDB-k programa bera antolatuko du 2019an Urruñan, taldeen proposamenez aberasturik.

### • **Harri Xuri dantzan**

Hiru programazio gualdi antolatu ditu Harri Xuri gelan, euskal dantzako sorkuntzen agerian emateko:

- Bilaka konpainiaren *Saio 0* ikusgarriaren egonaldi ondoko emanaldia, apirilaren 14an.
- Baxenabarreko *Dantza Sarean*-en ikusgarria, eta ondotik, Urtsuko Xoriak taldearen sorkuntza, ekainaren 30ean.
- Bax'Ainaraken eta Kautere Baleten ikusgarria, abenduaren 14an.

### • **Musik eta Dantza gualdia**

Gualdia martxoaren 3an iragan zen, Xiberoko arte-irakaskuntzako eskolarekin lankidetzan.

Herrietako hamahiru taldek (kasik 100 dantzari nerabe eta heldu gazte) eta Mauleko dantza garaikide eskolak sorkuntzak aurkeztu zituzten, eta zati batzuetan musika eskolako ikasleek lagundu zituzten.

## ➤ **Transmititzea eta sentsibilizatzea**

### • **Sentsibilizatzea**

Federazioarentzat, dantza taldeen laguntzea funtsezkoa da; baina, kohesioaren handitzeko eta kide gehiagoren barneratzeko, euskal dantzari eta kulturari buruz publiko zabalagoa sentsibilizatzea garrantzitsua da, bereziki eskoletan.

## **Ekintzak**

### • **Arte eta kultur hezkuntza proiektuak**

Lurraldeko eskoletako ikasleei euskal kulturaren ezagutarazteko, 2015etik, IDB-k irakasle elebidun eta ez elebidunei hainbat proiektu proposatzen dizkie euskal dantzaren eta kultur gertakari nagusien inguruan (ihauteriz, adibidez).

2017-2018an, 10 proiektu eraman dira; horien artean, EKE-k sortu eta hedatu *SOKA* erakusketari lotu sorkuntza proiektua, zazpi ikastetxerekin, Lapurditik Xiberora: 140 ikaslek parte hartu dute, ama-eskolatik kolegiara.

2018ko irailean animatzaile pedagogikoak enplegatu direnez, 16 proiektu martxan ematen ahalko dira 2018-2019an.

### • **Kultur partaideekin eraman proiektuak**

IDB-k beste egiturek euskal dantzari eta kulturari buruzko proiektuetan lan egiteko egiten dizkioten galdeei ihardesten die erregularki:

- Kontserbatorioaren euskal kulturaren egunean antolatu tailerrak.
- *SOKA* erakusketaren ustiapen pedagogikoa, eskoletako ikasleekin, EKE-rekin lankidetzan, Baionako eta Getxoko erakusketetan.

- pastoralari buruzko joko baten sorkuntzan parte hartzea, Baionako mediatekarekin eta IKAS pedagogia zerbitzuarekin.
- EKE-k azaroaren 10ean Miarritzen antolatu mintzaldia: *Nola aberasten dute elkar iparraldeko eta hegoaldeko dantzariak?*

#### • **Transmititzea**

Federazioak dantzaren zaletasun handia duten dantzariak lagundu nahi ditu. Formakuntza modulu zorrotzago zenbait proposatzen dizkie, bakarka gehiago engaiatu ahal izan daitezen dantzan.

#### • **Zabala modulua**

Dantza klasikoa eta euskal dantza uztartzen dituen formakuntza modulua Baionako Kontserbatorioarekin lankidetzan antolatua da, nerabeentzat.

2017-2018an, 40 ikaslek hartu dute parte Baionan asteazkenetan proposatu 2. zikloko kurtsoetan, eta 7 ikaslek 3. zikloko kurtsoetan, nahi zutenentzat dantza garaikideko kurtso osagarri batekin.

Urtean zehar zenbait *masterclass* ere antolatu dira, Maurice Ravel Kontserbatorioarekin eta Malandain Ballet Biarritzekin lankidetzan:

- 01/13: dantza garaikide tailerra.
- 04/07: Aukeran konpainiaren Edu Muruamendiaraz *masterclass*-a arratsaldean, eta arratsean, Martin Harriagueren *Sirènes* ikusgarriaren lehena eta Thierry Malandainen *Sylphides* ikusgarriaren lehena, Donostiako Vitoria Eugenia aretoan.
- 04/21: goizean, Auréline Guillotekin, Malandainen errepertorioan oinarritu *masterclass*-a.

2018ko irailean dispositiboa berriz abiatu da, eta bi zikloetan 55 ikasle biltzen ditu.

Musika eta koreografia proiektu bat ere iragaten ari da, esparru pedagogikoan, 2018-2019 ikasturtean. Xedea du obra baten sortzea, eta horretarako, Nathalie Biarnèsek du musika konposatu (Pau), eta koreografia Fábio Lopez (Baionako Illicite konpainia) eta Mathieu Vivier-ek (Bilaka konpainia) dute elkarrekin egin.

Sorkuntza horretan, kontserbatorioko 3. zikloko ikasleek eta Zabala moduluko ikasleek dute dantzatzen, eta musika kontserbatorioko Soka orkestrak (26 ikaslek) eta kanpoko 2 txalapartarik jotzen dute zuzenean.

Obra aurkeztuko zaio hainbat aldiz publikoari; besteak beste, 2019ko otsailaren 16an Lauga gelan, Baionako hiriak antolatu ikusgarri baten lehen zatian, eta 2019ko ekainaren 8 eta/edo 10ean Miarritzeko Gare du Midi aretoan, kontserbatorioak antolatu dantza departamenduko ikusgarri baten kariatara.

## • AFCMD

Maurice Ravel kontserbatorioarekiko lankidetzaren baitan, IDB-ko animatzaileei Gorputzaren eta Dantza Mugimenduaren Azterketa Funtzionala (AFCMD) moduluan parte hartzea proposatu zaie. IDB-ko lau animatzailek parte hartuko dute modulu horretan 2018-2019an.

## • *Masterklaz Xiberoa*

Xiberoko dantzei buruzko formakuntza, Xiberoko lizeoetako dantzariendako.

20 ikasle joan dira kurtso horietara ikasturte honetan. Formakuntzaren xedea Kompany Beritzaren *Üda batez* ikusgarri berriaren lehen zatiaren prestatzea zen. Urriaren 26an eta 27an aurkeztu zen Maulen, 2400 jenderen aitzinean. Lehen zatia ikusgarriaren beste emanaldi batzuetan ere aurkeztu da, besteak beste Baionan 2019ko otsailean (1500 ikusleren aitzinean).

## • Heldu ikastaldiak

Taldean dantza errepertorioaren aberasteko xedez, 3 ikastaldi antolatu ditu IDB-k dantzari helduentzat eta taldeetako formatzaileentzat, Euskal Herriko errepertorio berezi batzuei buruz.

- Bizkaiko *Arratiako Jota* ikastaldia Galdakaoko Andra Mari talde famatuak eman zuen apirilean, hainbat dantza taldetako 20 dantzari bilduz.
- EDBrekin eta Gipuzkoako eta Nafarroako partaideekin abian eman mugazgaidiko proiektu baten kariatara, Gipuzkoako dantzarien biltzarrak ikastaro bat proposatu du. Horren truke, Iparraldeko irakasle batek Xiberoko dantza errepertorioari buruzko ikastaro bat eman zuen Nafarroan, ekainaren 2an.
- Eskoziako dantzak ezagutzeko ikastaroak 10 euskal dantzari bildu zituen uztailearen 31n, Kae Sakurai dantza irakaslearen eta bi musikari eskoziarren inguruan.

## • Kontserbatorioko euskal dantza modulu osagarria

Ipar Euskal Herriko Kontserbatorioarekin lankidetzan eta Zabala moduluan dantza klasikoko irakasle bat eskura ematearen truke, euskal dantza opzio bat izan da urte osoan, IDB-ko irakasle batek 15 ikasleei emana, Maurice Ravel kontserbatorioan.

## ➤ Biltzea eta sortzea: Bilaka

Bilaka IDB-ren koreografia poloa da. 2018an, goi mailako 30 euskal dantzari eta 15 musikari biltzen zituen, kalitatezko sorkuntzen inguruan.

Federazioko administrazio kontseiluak, Bilakako interpreteen ordezkariak batek eta erakunde partaideek hautatu zuzendari artistiko batek zehaztu ditu koreografia poloaren sorkuntza proiektuak. Hautagaitzaren oinarria hiru urterako idatzi proiektu artistikoa zen. Hautagaiak proiektu deialdi ireki baten bidez deitu ziren.

Mathieu Vivier hautatua izan zen 2017tik 2019ra zuzendaritza artistikoaren beregain hartzeko. Bilaka tradizioa eta esperimentazioa uztarturik, 7 sorkuntza garatzen ari da,



fama handiko artista profesional anitzekin (Jon Maya, Igor Calonge, Fabio López, Pantxika Telleria...) eta ezagun egiten ari diren lurraldeko zenbait artistekin (Jose Cazaubon, Jokin Irungaray, Julen Achiary...) lankidetzan.

Hedapenari dagokionez, 2018an, ikusgarri hauen 25 emanaldi izan dira: *Saio 0, Bat batean, Negua, Soka, Leihotik*.

*Bilaka Dantzaldia* izeneko kalitate handiko dantzaldi herrikoï formula bat ere sortua izan da. 2019an abiatuko den *Plazaz* proiektuaren lehen urratsa izan da. Egitasmo honek profesionalak eta amaturrak bilduko ditu.

2018an, Bilaka profesionalizazio bidean sartu da; hortaz, azaroan, konpainia profesional independente gisa egituratu da.

Elkarte berria sortu da, IDB kide sortzaile duena. Oinarri hitzarmen bati esker, harreman hertsia atxiki du federazioarekin eta IDBren proiektuaren beste ardatzekin.

### **3.1.6. Euskal musika eta dantza – Ohiko euskal musiken eta dantzen baliabide gunea**

Herri Soinu eta Iparraldeko Dantzarien Biltzarra elkartu dira *Ohiko musiken eta dantzen baliabide-iturri* bat sortzeko xedearekin.

Kudeantza Batzorde bat eraikia izan da horretarako. Partaideak dira: Euskal Hirigune Elkargoa, Uztaritzeko herria, EKE, *Fédération des Associations de Musiques et Danses Traditionnelles* elkarteak. Helburu nagusia da dantzaren eta ohiko musiken arteko zubi ezberdinen eraikitzea, alor anitzetan, hala nola formakuntzan, sorkuntzan, hedapenean edo ondare balorapenean. Egitasmo hau hastapenean sartua izan da, Euskal Herriko Lurralde kontratuaren lan ardatzetan (2015-2020).

*Iturburua* deitu elkarte bat sortu da 2018an, egitura horren egingarritasuna lantzeko eta ikerketa baten egiteko. Kargudun bat izendatua izan da urte batentzat 2018 urtearen amaieran.

## **3.2. Lurraldeak lagundu**

### **3.2.1. Kultura politika publikoen sostengatzea**

Orokorki, EKE urte osoan aholkulari izan da erakunde ezberdinetan, hala nola herriak, Euskal Hirigune Elkargoa, Departamendua, Eskualdea, etabar.

Besteak beste, Departamenduarekin adostu hitzarmenaren babesean, gehigarritasunak bilatuak izan dira interes amankomunen misioak elgarrekin eramaiteko, hala nola ondarearen, kultura eta arte heziketaren, arte bisualen, irakurketa publikoaren edo ikusgarrigintzaren alorretan.

### 3.2.2. Kultura eskubideak integratu politika publikoetan

Kultura eskubideek bortxatzen gaituzte beharren, sarbide klasikoen eta kontsumismoaren logika ximpletarik jalgitzea norberaren eskubideak, askatasunak eta erantzunkizunak kontutan hartzeko. Horrela biztanle bakoitzak parte har dezake kultura altxorren ezagutzan, praktikatzean eta hedatzean, nola egunerokoak hala ez ohizkoak diren altxorrak.

Duela urte zenbait, eskubide horiek legean sartu dira, hala nola NOTRe (2015), edo LCAP (*Liberté de création, architecture et patrimoine* - 2016) legeetan.

Ondorioz, politika publikoek kontutan hartzen ari dute gai hau, besteak beste Akitania Berriko Eskualde kontseiluan.

Euskal Herrian, azken urte hauetako eraldaketa administratibo eta ekonomikoek, eta lurraldea nola bizitzen dugun erak bultzatzen gaituzte introspekzio baten abiaraztea lan moldeak aldatzeko eta Euskal Herriko aktore berriekilako elkarkidetasuna obratzeko. Halaber, Euskal Hirigune Elkargoaren sorrerak dakartzan aldaketek pusatzen gaituzte publiko ezberdinen arteko loturak berrikustea, hiri, baserri, arkitektura, paisaia, kultura anitza duen lurralde honetako euskal kultura eraikitzeko.

Helburu horrekin, EKE-k kultura eskubideen sail hori ideki nahi du eta sakondu bere elkartekide eta eragileekin.

### 3.2.3. Kultura eta arte programazioa lagundu

#### ➤ Donibane Lohizune

Ttittika Rekalt argazkilariak sortu *Zeihar soak* erakusketa ezarria izan da Ducontenea gelan, urtarrilaren 13tik otsailaren 4a arte. Bi bisita gidatu antolatua izan dira.

#### ➤ Hiriburu

Hiriak antolatu du *Andere serora* pastorala, 2018ko ekainaren 3an eta irailaren 16an, hiriaren historia hartuz gai nagusi bezala.

Karia hortara, bi mintzaldi antolatu ditu EKE-k, gertakaria herritarrei hobeki ezagutarazteko xedez.

- Urtarrilaren 27an: Jean-Louis Davant-en mintzaldia
- Apirilaren 28an: *Ongia eta gaizkia pastoralean*, Patrick Queheille idazle eta dantzariarekin

#### ➤ Baiona

EKE-ren partaidetza, aholku, artista proposamen eta egitasmoen jarraipenarentzat.

Kontzertu atipikoa:

- 2018ko uztailaren 27an - Collégiale elizan | Julen Achiary eta musika taldea (Basa

ahaideak)

- 2018ko uztailaren 28an - Collégiale elizan | Bilboko Jatorki Ahots zuriak, emazte zortzikotea

### ➤ Hendaia - Kultur zerbitzuarekin partaidetza

- *Kaperan A Kapela* kontzertu zikloa – Abbadia behatoki jauregian

EKE-k, Hendaia hiriak eta Hendaye Tourisme elkarteak antolatutako zikloaren 15. edizioa, a capella kantuari zuzendua.

- 2018ko apirilaren 6a: Manez & kobreak
- 2018ko urriaren 6a: Elise Archambault & JC Irigoyen 'Galtxetaburu'

- Udako erakusketak Mendi Zolan gelan

Kultura zerbitzuak galdeginik, Hendaia hiriarekin partaidetza garatu du EKE-k 2018an ondoko erakusketak instalatu ditu Mendi Zolanen, uda garaian, 3. solairuko erakusketa gelan:

- *Dantza Izpiak* 2018ko uztailaren 11tik agorrilaren 4ra
- *Euskal musika et Euskal emigrazioa* 2018ko agorrilaren 8tik irailaren 1era

## 3.2.4. Partaidetzak egitura labelizatuekin

### ➤ Scène nationale du Sud-Aquitain

- Bi hedapen kidetza eginak izan dira EKE eta Scène Nationalaren artean:
  - Argia taldearen *Martin Zalakain* ikuskizuna, 2018ko otsailaren 17 eta 18an, Baionako antzokian
  - *Beraz*, Organik Orkestra, 2018ko maiatzaren 24ean, Appolo gelan, Bokalen
- Pier Paul Berçaits artistaren diska balorapena - diskaren ekoizpena eta kontzertuak 2019an.

Partaidetza: EKE / Orchestre Bayonne Côte Basque / Scène nationale.

### ➤ Centre Chorégraphique National (CCN) Malandain Ballet Biarritz

Hirugarren aldikoz, EKE *Euskal dantzaren hitzordua* deitu festibalaren partaide izan da, Miarritzen, 2018ko azaroan.

Egitaraua:

- Azaroaren 2tik 9ra - Kasinoko sartzean | Euskal jauntzien erakusketa
- Azaroaren 5ean - Kasinoko antzokian | *Erritu* - Kukai dantza - Jon Maya Sein
- Azaroaren 7an - Kasinoko antzokian | *Saio Zero* - Bilaka - Mathieu Vivier
- Azaroaren 8an - Kasinoko antzokian | *Aukeran 20 urte* - Aukeran - Edu Muruamendiaraz
- Azaroaren 9an - Kasinoko antzokian | *Laida Pilota* - Pier Paul Berçaits (Miarritzeko hiriak eta Biarritz Evénements elkartearekin)

- Azaroaren 10ean, Mediatekan | Mintzaldia *Nola iparraldeko eta hegoaldeko dantzariak elgar elikatzen dute ?* Pantxoa Etchegoin, EKE-ko zuzendariak kudeaturik
- Azaroaren 11n - Miarritzeko karriketan | Maritzuli Konpainia
- Azaroaren 11n - Paza berrin | *Topa.K* - So.K
- Azaroaren 11n - Plaza berrin | *Kautere Balet* - JohaÑe Etchebest

### ➤ **Maurice Ravel kontserbatorioa (CRR) - Euskal kulturaren eguna**

Euskal kulturaren egun bat antolatua da urtero, bereziki kontserbatorioko irakasle eta ikasleentzat.

2018an, *SOKA* erakusketaren inguruan egina izan da. Erakusketa bera han egon da, 2018ko martxoaren 16tik apirilaren 6a arte.

Eguna bera iragan da 2018ko martxoaren 17an, larunbatez, *Musikarien eta dantzarien arteko lotura* gai nagusi bezala hartuz.

Xabier Itçaina ikerlariak mintzaldi bat eman du, eta hiru mintegi antolatuak izan dira Xiberoko, Baxenabarreko eta Lapurdiko musiketaz.

Partaideak: EKE / Herri Soinu / CRR

## **3.3. Euskal kulturari sensibilizatu**

### **3.3.1. Arte eta kultura heziketari (AKH) eta eskola inguruko jarduerari sustengua**

- AKH batzorde teknikoaren bilkuretan parte hartzea

Bilkura hauek EKE, Departamendua, Euskararen Erakunde Publikoa, Akademiako Ikuskaritza, Erakaskuntza katolikoa, IKAS pedagogia zentroa, Canopé eta berrikitan DRAC eta Euskal Hirigune Elkargoa bildu ditu.

Talde honek, 2017ko azaroaren 27an antolatu *Bizi eta eginarazi* egunari buruzko bilduma bideoa landu du. Bideo honen bidez, erakasleei eskaintza ezagutzeko parada ematen zaie. Bukatzeko, partaideen webgune ezberdinetan hedatua izan da.

2018ko ekainaren 21an antolatu azken bilkura batean erabaki da batzorde estrategiko baten plantan ematea partaide ezberdinekin, AKH-ri buruzko lurralde mailako politika baten pentsatzeko, denen osagarritasuna landuz. Existitzen diren dispositibo guzien inbentario baten egiteko gisan (Euskal Hirigune Elkargoaren sorreraren testuingurua dela eta) eta elgarrekin lurralde mailako erronkak definitzeko gisan. Departamenduak bilkura hori programatu behar du.

### 3.3.2. Euskararen eta euskal kultura irakurketa publikoaren sarean integratzea

Alor hori ekintza zombaitzuren bidez gauzatzen da: Bilketa sareari zuzendu egun profesionalen antolaketa, EKE-k mediatekekin antolatu kultura programazioa eta ekartzen dien aholkularitza artistikoa, Bilketa sareari sostengu teknikoak Biblio64-rekin (BDPA ohia) duen partaidetzaren bidez.

#### ➤ Bilketa sareari zuzendu egun profesionalak

Egun hauek, Bilketa eta Biblio64arekin partaidetzan eraikiak dira. Sareko liburuzainei zuzenduak badira ere, euskal funtsen problematikari lotuak diren profesional orori zabalduak dira (izan daitezten dokumentalista, euskara teknikari, erakasle, ...).

#### • 2018ko urtarrilaren 18a, osteguna: Wikimedia eta liburutegiak

\* **Lekua:** IKAS pedagogia zerbitzua- Uztaritze

\* **Egitaraua:**

- *Goiza:* Wikimedia egitasmoa eta bere alor ezberdinak: Wikipedia, Wikimedia Commons, Wikidata; Wikipedian aktiboak diren liburutegiak: egitasmo adibide batzu, Donostiako liburuzainek aurkeztuak
- *Arratsaldea:* Tailer praktikoa: Iparraldeko idazle batzuen fitxen osaketa

#### • 2018ko ekainaren 7a, osteguna: Komikia Euskal Herrian

\* **Lekua:** Donibane Garaziko mediateka

\* **Egitaraua:**

- *Goiza:* Mediatekaren bisita gidatua. Mintzaldia: *Komikigintza Euskal Herrian, gaurko egoera eta ezaugarri nagusiak, historia, argitalpen nagusienak, autore/ilustratzaile nagusiak, argitaletxeak*, Mikel Begoña-ren eskutik.
- *Arratsaldean:* *Xabiroi* aldizkari berezituaren aurkezpena Dani Fano-ren eskutik eta *Harriet ediciones* argitaletxe berezituaren aurkezpena Gregorio Muro-ren eskutik.

#### • 2018ko azaroaren 8a, osteguna: Zein euskarazko literatura nerabeentzat?

\* **Lekua:** Hazparneko lurralde eremua

\* **Publikoa:** Irakurketa publikoko eta Bilketa sareko liburuzainak, irakaskuntza elbiduneko eta SEASKA sareko dokumentalistak, irakasleak.

\* **Egitaraua:**

- *Goiza:* Argitaletxe berezitu bati hitza: Erein argitaletxea, bere argitalpen politika publiko honi begira. Euskal Idazleen Elkartearen (EIE) aurkezpena eta elkarteak eramandako ekintzak, Garbiñe Ubeda-ren eskutik: Idazleak ikastetxeetan programa eta literatura jarduerak programa.

- *Arratsaldean*. Esperientzia partekatzea: *Elepika* festibala eta bere Booktrailer lehiaketa, nerabeen irakurketa bultzatzeko inizatiba. Irakasle, dokumentalista eta liburuzain arteko partekatze momentua: Zer da liburutegien eskaintza gazteentzat? Gazteek zer irakurtzen/mailegaten dute? Zer literatura lantzen/irakurtzen da ikastetxeetan (kolegioa/lizeoa)? Zein liburu aholkatu gazteei eskoletako programeri lotuak (kolegioa/lizeoa)? Nerabeen irakurketa bultzatzeko ekintzak.

## ➤ EKE-k mediatekekin antolatu kultura programazioa eta ekartzen dien aholkularitza artistikoa

### • Baionako mediateka

- Bi mintzaldi Baionako mediatekan Feillet ahizpen erakusketa birtualaren inguruan (1837 – 1864)

EKE-k, Bilketak eta Baionako mediatekak mintzaldi ziklo bat pentsatu dute Blanche eta Hélène Feillet-en ezagutza egiteko. XIX. Mendean Euskal Herria zeharkatu zuten bi ahizpek, litografian eta margolaritzan aintzindari izan ziren haien garaian.

Bi ahizpen obra ugaria izan bada ere, publiko zabalak gutti ezagutzen ditu.

Ez jakintasun honek, galdera bat pausatzen du: mendeetan zehar, zein leku eta zein ezagupen ukan dute emazteek Euskal Herriko arte plastikoetan? Galdera honi erantzun batzu ekartzeko mintzaldi ziklo bat antolatua izan da:

- 2018ko azaroaren 20a: *Feillet ahizpen obra edo Euskal Herriko turista fabrika* mintzaldia, Florence Calame-Levert, Evreux hiriko arte museoko kontserbadorearen eskutik;
- 2018ko azaroaren 27a: *Emazte artistak Euskal Herrian* mintzaldia, Maria-Jose Aranzasti-ren eskutik. María José Aranzasti (Donostia, 1960) arte historialaria da, euskal arte garaikidean aditua. Artista feminista bezala, *Mujeres en las Artes Visuales* (MAV) elkartearen zuzendaritza batzordean parte hartzen du.

- 2018ko azaroaren 30a - *Korsikako kantu polifonikoa, ohitura baten transmisioa* mintzaldia

Aldudarrak elkarteak Aldudera gomiatu ditu I Muvrini taldeko Jean-François Luciani et Stéphane Mangiantini bi kantariak 2 eguneko ikastaldi baten ematera. Kortsikar polifoniaren transmisio moldeak aipatu dituzte, paghjella korsikako kantu tradizionalak eredutzat hartuz.

### • Miarritzeko mediateka

Duela urte andana bat finkatu partaidetzak segitzen du eta 2018an ere zonbait ekintza antolatuak izan dira Miarritzeko mediatekan.

- Martxoaren 9a, ostirala
  - \* Performantza elebiduna *Bihotzak Suhar/Brûle mon cœur* Itxaro Borda, Mylène Charrier eta JC Irigoyen 'Galtxetaburu'-ren eskutik (musika eta olerkia). Emanaldi hori, Zigor artistaren *Itzaletik At'* erakusketaren kariatera programatua izan da (Mediatekaren erakusketa gela, martxoaren 1etik 28ra).
- Apirilaren 27a, ostirala
  - \* *Jendeak* Ildoka konpainiaren emanaldia: Daniel Landart-en *Jendeak* liburuaren irakurketa antzeztuak (Elkar argitaletxea, 2017). Bernadette Luro, Eliane Mendiboure, Peio Berhokoirigoin, Jon Itçaina, Armand Jaunarena eta Pierre Larre-en eskutik. Taularatzea: Daniel Landart.
- Maiatzaren 24a, osteguna
  - \* *Oroitzen naizeno*: Binakako irakurraldi antzeztua, musika eta bideoaz lagundua. Zahartzea eta Alzheimer eritasuna aipagai. Irakurraldi antzeztua: Maddi Zubeldia eta Bernadette Luro Iratzoki. Bideoa: Agurtzane Anduetza.

#### • Amikuze, Donibane Garazi eta Irisarriko mediatekak

Abendu osoan zehar, Olentzerori buruzko erakusketaren instalazioa (erakusketaren 2 ale). Aholkularitza programazio artistikoan.

#### • Hazparneko mediateka

Aholkularitza programazio artistikoan. Publiko gaztea, idazle topaketak, eta mintzaldiak.

#### ➤ Bilketa sareari sostengo teknikoa

##### • Euskarazko *kamishibai*-ak

*Kamishibai* hitzak 'paperezko antzerkia' erran nahi du. Jatorriz japoniarra den kondaira teknika hau karrikako kondalariak erabiltzen zuten. Zurezko egitura batean, *butai* izenekoa, taula ilustratuak sartzen ziren, hurrei istorioak kondatzeko gisan. Margo bakoitzak istorio baten eszena kondatzen du. Paperaren alde batean ilustrazioa aurkitzen da eta bestean, testu labur bat, kondalariak bakarrik ikusten duena.

*Kamishibai*-a istorioak kondatzeko teknika ludiko eta erakargarria izateaz gain, irakurketa, idazketa eta ahozko adierazpen artistikoa bultzatzeko tresna pedagogiko paregabea da. Bestalde hizkuntzei idekitzeko molde bat da, mediateketan asko erabilia dena animazioentzat.

Gaur egun, *kamishibai* oso gutti badago euskaraz argitaratua (sorkuntza eta itzulpena barne).

Euskal funtsen sareko liburuzainekin antolatu egun batean, Biblio64a ohartu zen liburuzain batzuek euskarazko itzulpen batzuk eginak zituztela, haien liburutegietan baliatu ahal izateko.

Sarearen bidez lan hori partekatzea erabakia izan zen.

Biblio64ak EKEri lan hortan inplikatzeko proposatu zion, egile eskubideen gaiaren inguruan lan eginez eta itzulpenen hedapenean.

Galdesorta baten bidalketaren bidez abiatua da egitasmoa 2018 urte ondarrean, 2019an luzatua. Galdesorta honen bidez, itzuliak izan diren Kamishibai-en inbentarioa egin ahal izan du EKEk.

Bestalde, 2018an CPIE euskal itsasbazterra eta EIE elkartearekin partaidetzan Hendaia-ko Nekatoenean antolatu idazle egonaldiaren kariatara Iñaki Martiarena 'Mattin', idazle-ilustratzaileari *kamishibai* baten sortzeko aukera emana izan zaio, *Xotixe* izeneko. Liburutegi-mediatekeekin mediazio lan bat pentsatua izanen da 2019an.

#### • **Irakurketa kutxak**

Irakurketa kutxak 20-30 haur albumez osatuak dira. Biblio64-ak liburutegientzat eskuragarri ematen dituzte. Orain arte, kutxa hauek soilik frantsesez dira.

Biblio64ak EKEren laguntzarekin lan bat abiatu nahi du lurraldeko liburutegietan zabaldutako diren irakurketa kutxak euskarazko haur liburuekin osatzeko.

Liburuzainen beharrei buruzko inkesta (adin tarte, animazio osagarriak, ...), kutxen osaketa.

## **3.4. Euskal kultura hedatu**

### **3.4.1. Mugazgandiko harremanak garatu**

#### **➤ Hitzarmena Donostia Kultura-rekin**

EKE-k eta Donostia Kulturak 2010ean lehen aldiz sinatua zuten mugazgandiko hitzarmenari segipena eman nahi izan diote 2020 urteraino bi xede nagusirekin: Iparraldeko euskarazko kultur eskaintza Donostia Kulturako programazioan egonkortu eta sorkuntza egitasmo berritzaileak elgarrekin ekoiztu.

2018an, lankidetzari esker, horrelako ekintzak burutu dira:

#### • *Cyrano* sorkuntza

Otsailaren 16an eta 17an, Lugaritz kultur etxean. Hecho en Casa konpainiaren *Izpiliku sasi gibelean gordeturik*, *Cyrano-k lixibaren usain ona zuen* haur eta helduentzako lana estreinatu da, Hervé Estébeteguy zuzendariaren eskutik. Baina estreinaldia bera baino, lan egiteko prozesua izan da interesgarria proiektu honetan,



izatez, lanaren sorkuntza Iparraldeko eta Hegoaldeko kultura egituretan egin hainbat egonaldien bitartez gauzatu baita.

Hala, Lugaritzen bertan lehen *casting*-a egin zen 2017ko otsailean, eta bertatik, 3 aktore hautatu ziren, bi donostiar eta Iparraldeko bat. Iparraldeko hainbat egituretan lana prestatzeko egonaldiak eta entseguak egin ondoren, 2017ko urrian Lugaritzen astebetetz egon ziren antzezlanari azken ukituak emateko.

- *Wikiliburutegiak* egun profesionala

2013tik hona Donostiako Udal Liburutegia sareak arlo numerikoan trebatzeko saiakuntza handia egin du. 2015ean ikasitako horretatik abiatu eta Wikipedia bezalako eremu digitalean lanean hasi ziren. Liburutegia eta Wikipediaren arteko elkarlana *Donostiapedia* programaren bitartez bideratu zen. 2016an eta 2017an lan hori egonkortu da eta *WikiLiburutegiak* izena eman zaio proiektuari. Proiektu honetan liburuzainak editore bihurtzen dira eta beren helburua euskal idazleen, eta orokorki, literaturaren inguruko artikulak Wikipedian sortzea, hobetzea eta gaurkotzea da.

2018an Donostiako eta Iparraldeko liburuzainen artean proiektu hori orokortzeko asmoa izan da. Formakuntza saioak hasi ziren urtarrilaren 18an Uztaritzen. Proiektu honetan euskara da lanerako ardatza, baina asmoa da gure inguruko beste bi hizkuntzetan ere hedatzea, euskal kultura erdaldunek ezagutu dezaten.

- Willis Drummond kontzertua Intxaurrondoko Kultur Etxean. Urriaren 13an, EKE lanetan aritu da Iparraldeko musika taldearen kontzertuaren antolaketa errexteko, batez ere bertan egindako grabaketa DVD eta KD batzuen editatzeko *Willis Drummond Live intxaurrondo k.e. 2018 x 13* izenpean.

- *Afoniak*, sekula entzun gabeko irratsaioa

Dedikatutako sinaduren ondotik, ahotsa da idazle bati serio eskatzen zaion gauza bakanetakoa. Hain zuzen ere, zenbait euskal idazleren ahotsak baliatu eta bihurtitu ditu Xabier Erkiziak sekula entzun gabeko irratsaioa osatzeko. *Idazlezainak* egitasmoak, liburuzainen lanari esker, bildutako euskal idazleen informazioa eta ahotsak izan ditu oinarri emanaldi experimental honek.

Xabier Erkizia, Arantxa Iturbe eta Luca Rullo-k emanaldia estrenatu dute Donostiako Victoria Eugenia Clubean azaroaren 16an eta Durangoko azokan abenduaren 9an.

## ➤ **Iparraldea bertan - Gipuzkoako Diputazioarekin partaidetzan**

- \* **Lekua:** Koldo Mitxelena Kulturunean – Donostian

- \* **Egitaraua:**

- Martxoaren 1ean - 19etan | Pauline eta Juliette kontzertua
- Martxoaren 8an - 19etan | *Estitxu* dokumentala, Frank Dolosor
- Martxoaren 15ean - 19etan | *Harian* ikuskizuna (pianoa/euskal literatura) Elodie Bafallio eta Maika Etxekopar
- Martxoaren 22an - 19etan | Bidaia laukotearen kontzertua

### ➤ **Getxo - Iparra galdu gabe**

EKE-ren eta Getxoko hiriaren artean, bi urteetarik antolatzen da *Iparra galdu gabe* zikloa. 2018an, hari nagusia *SOKA* erakusketa izan da. Hau aurkeztua izan da urriaren 4tik azaroaren 4a arte, Romo deitu gelan.

Karia hortara, hainbat ekimen eramana izan da, hala nola:

- \* Kontzertuak eta ikuskizunak: Pauline eta Juliette, Anje Duhalde, Kiribil
- \* Eneko Bidegain irakaslearen mintzaldia
- \* *Zazpi senideko* antzerkia, Le petit théâtre de pain, ArteDrama eta Axut ! konpainia
- \* Literatura: Katixa Dolhare-Çaldumbide
- \* Erakusketaren bisita gidatuak: JohaÑe Etchebest, Oier Araolaza
- \* Dantza ikuskizunak

### ➤ **Durangoko azoka 2018 – 53. Edizioa – 2018ko abenduaren 5etik 9ra**

53. edizioko leloa "DA! Asko dira" izan da.

«Euskal kultura oparoa eta aberatsa da, eta aniztasun horren isla da Azoka». Gerediaga elkarteko Nerea Mujika lehendakiak dion bezala, aurten, Azokak bere aniztasuna aldarrikatu du edizio honetan. Nerea Mujikak azpimarratu duen bezala, sormenaren lurraldea anitza da, zentzu fisiko eta metaforikoan: «Bertan elkartzen da sortzaile berria eta ibilbide luzekoa, garaikidea zein tradizionala, abangoardista nahiz herrikoia eta komertziala bezala apurtzailea».

Iparraldeko parte hartzaileak dinamika hortan sartu dira eta haien ekoizpenak ere naturalki lelo honen ildotik, berritasun ugarirekin. Urtero bezala, proposamen anitza izan da eta kultur ekoizpen zabala aurkitu ahal izan da: haur literatura, diskak, eleberrak, argazki liburuak, egutegi bat, olerki bildumak, literatur aldizkariak, ...

Orain duela hamabi urte abiatu Gerediaga elkarte antolatzailearen eta EKE-ren arteko partaidetzari esker, Ipar Euskal Herriko ekoizpenak argiago agertu dira Durangoko azokan.

Urtero, azokan aurkeztuak diren berritasunen artean gutti gora behera %10a Iparraldeko ekoizpenak dira: aurten ere kasik 50 berritasun aurkeztuak izan dira.

Iparraldeko partaide ezberdinak, gunee batean elkartuak dira. Komunikazio berezi bat plantan emana izan da aurten ere: prentsaurreko berezia Baionan eta Iparraldeko ekoizpenen katalogoa. Jakin behar da gainera Bilketaren bidez lurraldeko liburutegi guzietan hedatua izan dela katalogo hori baita erakasleen sareari IKAS pedagogia zentroaren bidez.

Iparraldeko egiturek mahainaren alokailuarentzat prezio apalago bat ordaintzen dute eta EKEk lan administratibo bat eramaten du.

Horrez gain, EKEk laguntza ekonomiko bat ekartzen die Iparraldeko egiturei bide eta hotel gastuentzat (120€ forfeta bat bide gastuentzat eta 50€/gaua hotel gastuentzat).

### **2018ko ediziorako datu orokorrak:**

- \* 2018ko kartelaren sortzailea: TXAKUR GORRIA sormen kolektiboa
- \* Stand kopurua: 247
- \* Autoekoizleak: 17
- \* 200 kultur ekitaldi baino gehiago
- \* Aurkeztu diren berritasunak: 439, hau da, 304 liburu, 93 diska, 18 aldizkari, 1 argitalpen elektronikoa eta 23 bestelako ekoizpen (joko, agenda, egutegi...)

### **Iparraldeko egituren datuak:**

- \* 9 erakusmahain (Goienkale 21 – 29) + autoekoizle bat
- \* 48 berritasun: 27 liburu, 20 diska (hauen artean 2 autoekoizpen), eta bestelako ekoizpen bat (egutegia)
- \* 12 kultur ekitaldi: kontzertuak, hitzaldiak, liburu aurkezpenak, ...

### **Iparraldeko parte hartzaileak :**

11 egitura izan dira azokan: 5 argitaletxe, 4 diskoetxe, bestelako egitura bat eta autoekoizpen bat. Iparraldeko partaide guzi hauek, espazio bateratu batean elkartuak izan dira urte guziz bezela (Goienkale 21-29). Elkar argitaletxearen Iparraldeko adarra Elkar-en mahai nagusian ordezkaturik izan da. Autoekoizleen plazan (61&62), Iparraldeko talde bat atzematen ahal zen.

- \* Argitaletxeak: Maiatz, Ikas, Gatuzain, Zortziko & Elkar
- \* Diskoetxeak: Agorila, ZTK, Saroia & Belarri
- \* Beste motako egitura: Iparraldeko Ikastolak
- \* Autoekoizlea: Antton Larrandaburu & Bitxiloreak

### **12 kultura hiztordu ...**

- \* AHOTSENEA – ZUZENEZKOAK · *Kontzertuak*
  - Abenduaren 8a – 15:40-16:10 | *Dual (2/2) beharrezkoa da...Hutsa* – Tristtan Mourguy eta Horeba (I.O., 2018)
  - Abenduaren 9a
    - 11:00-11:30 | *Anai* – Berçaits anaiak (Saroia, 2018)
    - 11:40-12:10 | *Mairu dantza* – Mairu dantza (ZTK diskak, 2018)
    - 13:40-14:10 | *Antton Larrandaburu eta bitxiloreak* – Antton Larrandaburu eta bitxiloreak (autoproduction, 2018)
    - 14:20-14:50 | *14* – Pantxix Bidart eta Alexis Therain ( ZTK diskak, 2018)
    - 17:00-17:20 | *Zimurak baleki* – Maddi Zubeldia eta H-Eden (Belarri, 2018)
- \* AHOTSENEA - SOLASALDIAK · *Idazle topaketak*
  - Abenduaren 5a – 18:00-18:25 | *Manez eta kobreak* – Thierry Biscary (autoproduction, 2018)
  - Abenduaren 6a – 12:00-12:25 | *Bidaia Nafarroara euskaldunen oldartzearen denboran* – Jakes Saraillet eta Xabier Zabaltza (Maiatz, 2018)

- Abenduaren 8a
  - 11:00-11:25 | *Euskal Herria beti!* – Joseba Aurkenerena Barandiaran (Zortziko, 2018)
  - 11:30-11:55 | *Musuak* – Ainara Maia Urroz eta Iñaki Martiarena Otxotorena 'Mattin' (Zortziko, 2018)
- Abenduaren 9a – 18:30-19:30 | *Afoniak* – Xabier Erkizia eta Arantxa Iturbe (Donostia Kultura eta EKE, 2018)
- \* SAGUGANBARA – Haurren xokoa
  - Abenduaren 7a – 13:00-13:30 | *Mamaia*ko - Amaia Hennebutte (ZTK, 2018)

### 3.4.2. Euskal kulturaren hedapena Akitania-Berrian

#### ➤ *Aquitaine.eus* 2018ko hitzarmena

2016ko urtarrilan Etxepare Euskal Institutuak eta Iparraldeko EKE-k sustaturik, eta Akitania-Euskadi Euroeskualdearekin elkarlanean, martxan jarritako proiektu honek helburu hauek ditu: batetik, Ipar eta Hegoaldeko euskal kultur sortzaileen lanak Akitaniako diziplina ezberdinetako jaialdi eta ekitaldietan erakustea; bestetik, Akitaniako eta Euskadiko kultur sortzaile eta eragileen arteko mugazgandiko harremanak eta elkarlana sustatzea.

Proiektu hau, Euroeskualdearen 2014-2020 Plan Estrategikoak jasotzen duen *Europar hiritartasuna* ardatzaren baitan ulertu behar da, eta ardatz horrek barnebiltzen dituen bi ekintza hauek indartzea du xede: euroeskualdeko hizkuntza ondare komuna sustengatzea eta kultura euroeskualdeko lankidetzaren zutabe bihurtzea.

2017an Nafarroako Kultur Zuzendaritza – Vianako Printzea Erakundea proiektuan sartzeak, euroeskualde mailako lankidetzak kultural honi bultzada berri bat eman zion.

2018an Euroeskualdearekin hitzarmena berritu eta indartzearekin, programa hau euroeskualdearen lurralde berrietara eramateko aukera eman digu, bai Akitania-Berrian bai Nafarroan, elkarlan hau beste hainbat kultur diziplinetara zabaltzeko aukera eskainiz.

Hauek dira 2018an programaren baitan burutu diren ekintzen laburpena:

- **SOKA erakusketa | 2017ko abenduaren 2tik – 2018ko otsailaren 10ra**

Euskal Dantza tradizionalari buruzko erakusketa hau Akitania Berriko hiriburuan, Bordelen, Mériadeck erdiguneko auzoko mediatekan egon zen, bizitza kultural handia duen zentroan. Inaugurazio ekitaldian Alain Juppé, Frantziako lehen ministro ohia eta Bordeleko auzapezak, parte hartu zuen.

• **Projection basque erresidentzia: euroeskualdeko elkarlan artistikoa**

• 2018 urtarrilak 22-26

Bordele ondoko Le Rocher de Palmer aretoan, *Projection Basque* euroeskualde mailako erresidentzia artistiko multidiziplinarraren lehen egonaldia burutu zen, musika, ikus-entzun, eta dantza biltzen dituen emanaldi bat sortzen aritu zirelarik honako artista hauek:

- Las Hermanas Caronni musikariak (Bordeaux, Aquitaine)
- Benjamin Colin perkusionista (Donibane Lohizune, Euskal Hirigune Elkargoa)
- Martxel Rodrigez Kukaiko dantzaria (Lesaka, Nafarroa)
- Patxi Lascarai argazkilaria (Baigorri, Euskal Hirigune Elkargoa)
- Stephan Carricondo kale-artista margolaria (Bordeaux, Aquitaine)

Urtarrilaren 26an, sorkuntza prozesuaren lehen emaitza erakusteko kontzertua eskaini zuten bertan.

• 2018 martxoak 6-8

Erretereriako Niessen Kulturgunean bigarren egonaldi artistikoa egin zuen *Projection Basque* proiektuko lantaldeak, eta martxoaren 8an sorkuntza prozesuaren amaierako emanaldia eskaini zuten bertan.

• **Euskal antzezlanak frantsesera itzultzea | 2018 martxoak 5-8**

DFERIA Donostiako Arte Eszenikoen Nazioarteko Azokako 2018ko programazioan, lau euskal antzezlan bertsio originalean ikusi ahal izan ziren, frantses eta ingelesezko goitituluekin, Akitaniako eta nazioarteko programatzaileei jatorrizko bertsioan ikusteko aukera emanaz.

Ondoko lan hauek izan dira itzultitakoak: *Giltzaren etxea* (Tanttaka teatroa), *Sherezade eta tipularen azalak* (Vaiven Producciones), *Dos hermanas* (Théâtre des chimères) eta *Esto no me lo esperaba* (Zanguango Teatro).

Aquitaine.eus programaren babesari esker, Akitaniako programatzaileek antzezlanak bertsio originalean ikusi eta euren antzokietan euskarazko bertsioan (frantsesezko goitituluekin) programatzen ahalko dituzte datozen hilabeteotan.

• **Euskal dokumentalak La Rochellen | 2018 ekainak 25-28**

Aquitaine.eus programaren hedapena Akitania Berriko Poitou-Charentes eskualdera zabalduz, SUNNY SIDE OF THE DOC nazioarteko dokumentalen azokan, Euskadiko, Nafarroako eta Euskal Hirigune Elkargoko ekoiztetxeek parte hartu zuten. Euroeskualdearen lankidetzari esker inoiz baino enpresa gehiagok parte hartu zuten azoka honetan *Basque Audiovisual* markapean, 14 enpresak hain zuzen, horietako bi nafarrak eta beste bi Euskal Hirigune Elkargokoak:

Altube Filmeak, Arena Comunicación, Bainet Zinema, Gastibeltza Filmak, Haruru Filmak, Irusoin, Marmoka Films, Mirokutana, Sincro Produccion, Sonora Estudios, Sr y Sra eta Taiu Media. Halaber, urtero Donostiako Zinemaldian Ibaiak (Ikus-Entzunezkoen Euskal

ekoizle Burujabeen Elkarte) antolatzen duen Lau Haizetara Dokumentalen Koprodukzio Foroa eta Iparraldeko Kanaldude telebista ere egon dira ordezkaturak.

Azoka honetan *Basque Audiovisual* standak muntatu zen, eta euskal-nafar dokumental berrien katalogoa banatu zen akreditatu guztien artean (2.000 profesional), Poitou-Charentes eskualdera eta ikus-entzunezko arlorak ere zabalduz Aquitaine.eus egitasmoa.

• **Euskal konpainiak Libourneko Fest'Arts jaialdian | 2018 abuztuak 1-3**

Fest'Arts kaleko Arteen Nazioarteko Jaialdiaren baitan, 2 euskal kale antzerki eta dantza konpainiak aritu ziren: Gipuzkoako Haatik Konpainia, *4eme* lanarekin eta Akira Yoshida dantzari nafarra, *Home* ikuskizunarekin. Jaialdian euskal artistak Frantziar programatzaileei aurkezteko zein mugazgaindiko euskal-akitaniar kultur erakunde eta sortzaileen arteko elkarlan aukerak aztertzeke topaketa bat ere burutu zen, eta bertan parte hartu zuten, besteak beste, Pedro Ormazabal Artekaleko lehendakariak, Imanol Otaegi Etxepareko Kultur zuzendariak, Akira Yoshida eta Haatik-eko dantzariak, Tiphaine Giry Fest'Arts-eko zuzendariak, Phillipe Buisson Libourneko auzapezak, eta Akitaniako hainbat programatzailek.

• **Euskal dantzak Le Rocher de Palmer aretoan | 2018 azaroak 16**

Bordele ondoko Le Rocher de Palmer aretoan, *Danses Basques – Nouvelles Générations* izeneko ikuskizuna eskaini zen. Bilaka konpainiaren *Soka* eta SO.K konpainiaren *Hatsa* ikuskizunak egon ziren ikusgai. Aretoa bete-beterik egon zen, 650 bat ikuslerekin.

Honekin batera, Patxi Laskarai argazkilariaren *Gure bazterrak* erakusketa izan zen bertan azaroaren 8tik 29ra. Erakusketaren zabalera ekitaldia azaroaren 16an egin zen, eta bertan presente egon zen EKE-ko Pantxoia Etchegoin zuzendaria.

• **Kirmen Uribe *Lettres du Monde* jaialdian | 2018 azaroak 19-22**

Frantziako Akitania-Berria eskualdean egiten den *Lettres du Monde* jaialdian parte hartu zuen Kirmen Uribe idazleak. Bertan, *Elkarrekin esnatzeko ordua* (L'heure de nous réveiller ensemble) bere azken liburuaren frantseserako itzulpena aurkeztu eta hainbat hitzalditan hartu zuen parte.

Batetik, azaroaren 18an, igandea, Javier Cercas idazlearekin eztabaidatu zuen *Écrire l'Espagne d'hier et d'aujourd'hui* gaiaren inguruan, Bordeleko *La Machine à Lire* liburudendan, 11:30etan. Bordeletik mugitu gabe, beste bi hitzaldi ere eman zituen azaroaren 20an, asteartea, *Être basque, un engagement littéraire* izenpean : bata Bordeaux Montaigne Unibertsitatean, 13:30ean, eta bestea Cervantes Institutuan, 18:00etan.

• **948 merkatua – Iruña | 2018 azaroak 21-23**

Nafarroako kultur diziplina guztien merkatua den honek bere eremua Euroeskualde osora zabaldu duela eta, hainbat jarduera sustatu zituen EKE-k 948 Merkatuan.

Batetik, Akitania Berriko kultur programatzaile eta ordezkarien presentzia bermatu du PRO merkatuan euskal sortzaileen lanak ikusteko aukera izan zezaten. Bestetik, azaroaren 21ean, 18:30etan Baluarten, *Projection Basque* mugazgaindiko elkarlan artistikoan oinarritutako proiektuaren *Partir/Utzi* ikuskizunaren *showcase*-a ikusi ahal izan da. Ostera, azaroaren 22an, osteguna, 10:00etan Pantxoa Etchegoinek (EKE) eta Imanol Otaegik (Etxepare Euskal Institutua) hitzaldi bat eman zuten, Etxepare Institutuak, EKEk eta Vianako Printzea Erakundeak euskal kultura Akitanian zabaltzeko eta mugazgaindiko lankidetzak kulturala sustatzeko sortutako Aquitaine.eus proiektua azaltzeko.

• **Euskal zinema: zinemagileen hiru belaunaldi liburuaren argitalpena**

Euskadiko Filmategiak euskal zinemaren historiari buruz egindako liburua (404 orrialdeko lan sakona), Joxean Fernandez zuzendariaren ardurapean egindakoa, frantsesera itzuli ondoren, lan honek euskal zinemagintzaren berri Akitanian eta Frantzia emateko duen interesa ikusita, ARTEAZ argitaletxearekin liburua argitaratzeko akordioa lortu du EKE-k. Eta 2019ko urtarrilan argitaratua izan da. Liburua atera bezain sarri, hainbat topaketa antolatuta izanen dira 2019an, zinegile askorekin, bai Iparraldean, bai Euskal Herritik kanpo, eta oroz gainera Akitania-Berrian.

• **Literatura - Ipuingintza. Euskal eta akitaniar kontalarien trukaketa: Limoges - Iparraldea. *Habiter, penser, raconter les territoires en Nouvelle-Aquitaine* egitasmoa**

Partaidetza bat sortu da EKE-ren eta URFR Poitou-Charentes egituraren artean, kultura egitasmo berezi bat garatzeko: bi kondalariek, bat Vienne lurraldekoa (Michèle Bouhet), bestea Euskal Herrikoa (Koldo Amestoy), lurralde ezberdinetako jendeen lekukotasunak bildu dituzte (20 bat orotara) eta hauek oinarritzat hartuz, ber-idazketa sorkuntza bat egin dute elkarrekin.

Hiru artista egonaldi eginak izan dira (Vienne lurraldean) eta Euskal Herrian.

Ondorioz, liburu bat agertuko da 2019an, eta sorkuntza hauen ikusgarriak emanak izanen Akitania guzian.

• **Proiektuaren komunikazioa eta zabalpen lana**

Aquitaine.eus web-orria sortu denetik, etengabe elikatua izan da, bertan proiektuaren berri emanez eta burutzen diren ekintza ezberdinen albisteak zintzilikatuz, euskaraz, gaztelaniaz, eta frantsesez. Web-orriaren elikatzeaz Ane Castelruiz Community Manager-a arduratu da ekainera arte. Orduetik aurrera Lide Hernando Etxepareko sare sozialen arduraduna izan da proiektuaren komunikazioa bere gain hartu duena.

• 2018 otsailak 28

*RIS3, Berrikuntza, Kultura eta Sormen Industriak: lurraldeak artikulatzeko aukera bat* jardunaldien baitan, Donostiako Tabakalera, Etxepare Institutuko zuzendari Irene Larrazak Aquitaine.eus proiektuari buruzko hitzaldia eman zuen.

- 2018 Azaroa

Aquitaine.eus proiektua zer den eta horren baitan burutzen diren jarduerak azaltzen dituen esku-orria egin eta argitaratu zen. Lehen aleak Iruñeko 948 Merkatuan banatu ziren, Euroeskualdeak antolaturiko standean. Ordutik aurrera, Nafarroako Gobernuak, EKEk eta Etxeparek beren bulegoetan banatu dituzte esku-orriak.

- **Proiektuaren lanketa, jarraipena eta koordinazioa -2018**

Nafarroako Vianako Printzea erakundeko Dori Lopez Jurio (maiatzera arte) eta Mikel Ozkoidi, EKE-ko Pantxoia Etchegoin eta Frank Suarez, eta Etxepare Euskal Institutuko Imanol Otaegi eta Alex Aginagaldek osaturiko lan-taldeak urtean zehar honako bilera hauek antolatu dituzte proiektuari jarraipena emateko:

- 2018.03.06. Donostian, Etxepare Euskal Institutuaren egoitzan.
- 2018.04.26. Hendaian, Campanile hotelean.
- 2018.07.06. Ustaritzen, EKE-ren egoitzan.
- 2018.11.22. Iruñan, Baluartan, 948 Merkatuan



## 4. KULTURA ERAGILEAK ETA ELKARTEKIDEAK SUSTENGATU

### 4.1. Elkartekideak lagundu

#### ➔ DLA laguntza dispositiboa

EKE-k eta Pirineo Atlantikoetako DLA laguntza dispositiboak (Profession Sport et Loisirs eta Instep Aquitaine egiturek eramana) elkarteei zuzendu informazio bilkura eta jarraitze kolektiboak proposatu dituzte berriz ere 2018 urtean zehar. Hala nola, jarraitze kolektibo bat eta 4 informazio gaualdi antolatuak izan dira.

Elkarteen beharrei hobeki erantzuteko, 2018 urte bukaeran EKE-k galdesorta bat zabaldu du. Inkesta honen emaitzak ikertu ondoan, 2019ko informazio gaualdien eta jarraitze kolektiboaren gaiak definituak izan dira.

2018an, gaualdiei buruz komunikazioa hobetzeko lan bat eramana izan da bestalde. (eskuorriak eta afitxak eginez, webgunearen bidez)

#### 4.1.1. Informazio gaualdiak antolatu

- Gaia: *Kontabilitatearen eta elkarte kudeantzaren oinarriak*
  - \* Data: 2018ko apirilaren 28an, 9:00etatik 17:00etara
  - \* Tokia: EKEren bilkura gelan Uztaritzen
